

TTiPi-TTAPA

BAZTAN - BIDASOA - MALDA ERREKAKO ALDIZKARIA

1986ko Abendua

18. zenb.



J. J. J. J.


ТТХПЗ - ТТХПЗ

NON-ZER

BERRIAK

2. Bera.
3. Lesaka.
6. Arantza.
7. Etxalar, Igantzi.
8. Sunbilla.
9. Goizueta.
11. Ituren.
12. Doneztebe.
13. Aurtitz, Narbarte.
14. Urrotz-Labaien.
15. Zubieta.
18. Saldias, Baztan.
20. Zugarramurdi.
- GAIAK, ELKARRIZKETAK, IPUIAK...
21. Natura.
22. L.L-etako hauteskundeak eta etorkizuna.
25. Sarrio-ko LABekoekin elkarrizketa.
26. VLIESENA S.A.
29. Langabezia bukatzen ez den asuntoa.
30. EHNE-Nafarroa.
32. Langabezia, lan kontratuak.
35. Euskarak sei duro balio.
36. Euskararen legea ala kontrakoa?
38. XORROXIN Irratia.
40. Abortoa.
42. "Ley del Vascuence"
43. Ipuiak eta poesiak.
46. Lankratx-ekin larunbat gauean.
48. Sorginen leizeak.
50. Komikiak.

Azala: X. Fagoaga.
Kontrazala: Blanka.



OHARRA:

Heldu den urtean Eusko Jurlaritzatik ez dugu diru laguntzarik jasoko. (Negar malkoak). Nafarroako Diputazioak, 35.000 pzta. besterik ez digu emanen ale bakoitzeko. (Negar zotinka). Herrietako Udalei eskatu diegu laguntza,... ez dakigu zer nolako laguntza emanen diguten. (Negar zorian).

Aldizkaria inprimategian egi-tearen gastuak goraka doaz.

Beraz, Ttipi-Ttapako ale bakoitza garestia!...amorratioa!..

Ttipi-Ttapak 175 pzta. hementik aintzina.


TTIPI-TTAPAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
 HELBIDEA _____
 TELEFONOA _____
 HERRIA _____
 PROBINTZIA _____
 BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
 SUKURTSALA _____
 ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERRAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

Sor Carmen Oiarzabal Plazasek "Biotz Sakratua" Ikastetxearen izenean, aurkeztu zuen instantzia bat subentzioa eskatzuz. Honako



UDAZKENA
BOROBILDUZ

**LABIAGA IKASTOLAKO
TALDEA
BEHIN BATEAN
JU, JU, JU,**

EGUNA / Día : Abenduak 12 / de Diciembre
ORDUA / Hora : Arrats. 6,30tan / de la tarde
LEKUA / Lugar: GURUTZ ENPARANTZAKO ARETOAN
 Salón de Actos de la Plaza de la Cruz

Ikastolako Antzerki taldeak, Abenduaren 12an, Iruñean, "BEHIN BATEAN JU, JU, JU" antzeslana aurkeztu zuen, arrakasta handia izan zuelarik.

Omenaldi honekin jarraituz errango dugu Eztegarra pilota lekua bete bete zegoela bere jarraitzale eta lagunez. Lagunak bai, hori aitortu beharra dago, maitagarria egiten bait da Jose Luis.

Elkartearen izena Arrano izanen da eta bere helburuak euskara eta euskal kultura bultzatzea.

Irain eskola.

ETXALAR

HAURRENTZAT JANTOKIA.

Lastor aski jarriko dute martxan eskolako haurrentzako jantokia. Egia erran, aspalditik hasiak ziren guraso frango hori lortzeko bilerak egiten. Modu horretan baserrian bizi diren haurrek ez dute bazkaltzeko baserrira joan beharrik izanzen. Kontutan izan behar dugu, gero eta haur gehiago direla kasu horretan, ikastolako eskolaurrekoaz gain, aurtan 6garren kurtsoa ere Etxalarren egiten bait dute. Denetara 20 baino gehiago.

Beraz, bazkariak "Lagun Toki" elkartearen emanen dituzte, han bertan prestatuak. Hortarako, jantokia eta transportearentzat subentzioa eske, Iruñeako delegaziora jo dute. Kontatu digutenez, aurtan kasu horretan dauden guztiak ez dute subentziorik jasoko maestruak izan duen erru batetatik, baina datorren urterako orne ibiliko dira berriro gerta ez dadin.

KUARTELAREN AFERA GELDIRIK SEGITZEN DU.

Kuartel berriaren aferak geldirik segitzen du momentuz. Dakizuenez, Irailaren bukaeran obrak hasteko lehen pausoak hasi zituzten ematen, lurra markatuz Andutzeko landan.

Momentu haretan eta Andutzekoak



Kuartel berria landa honetan egiteko asmoa dute.

presentatutako errekurtsio bati esker, Juezak obrak berehala gelditzeko agindua eman zuen eta bide batez, Juizioa izan ondotik emanen die Andutzekoei landa erosteko aukera. Bitartean aipatzekoa da Guardiazibilen eta alkatesaren jokaera afera honetan, biak ere, ikaragarri ongi uztartuak bait dabiltza. Hasteko G.Z.en portaera guztiz adierazgarria eta probokadorea izan baita, gau eta egun landa parean, karreteran, guardia eginez eta aldi berean Andutzekoei gorotza landara eramatea debekatuz.

Zoritxarrez gaur egun, G.Z.ak dira herri honetan jaun eta jabe, beren armez baliatuz eta zenbaitzuk ematen dieten babesari esker; "independienteak" hain zuzen.

Hala ere, argi geldituko da berriro ere, noizbait kuartela egiten badute, bere eskuetan kontra egiteko deus ez dutenak (legeen barnean behintzat) ankapetik pasatuz izanzen dela eta beren arrazoia inposatuz. Irabazleak G.Z.ak eta betiko jauntxoak; batzuek ere Gaztelu jauna, bera baita lurraren saltzailea eta projektuan den kuartel berriaren arkitektoa eta guztira diru aunitz eskuratuko duena. Galtzaileak bertze guztiak, herritar guztiak.

NEKAZARIEN KOOPERATIBAKOEK ALMAZEN BERRIA.

Nekazarien kooperatibak hasi jadanik, almazen berri bat egiteko obrak. Beolako erreka aldean eginen dute eraikintza berri hau pentsuak eta gainerako tresnak altxatzeko.

IGANTZI

AZKENEAN, IGANTZI ETA ARANTZAKO POSTARIAREN KAXOTA MOLDATURIK.-

Ez dakit gogoratuko duzuen Igantziko Bentetan zegoen txamizo negargarri bat. Egia erran nahiko zaila zen bere ondotik pasatzea erreparatu gabe. Ba, azkenean, hamar urte protesta eta

eskakizunez pasatu ondoren, moldatzea erabaki dute bi Udaletxeek. Bertze itxura bat hartu du errepideko sarrerak (hau garrantzizkoena auzotarrentzat) eta bere barruan egoteko ez da guardasolik behar (hau berriz postariarentzat). Zerrixtegi bat zirudien bulego bat baino. Ea orain ez zaion inori eskutitz bustirik heltzen. Hori gertatuko balitz

orain postariari leporatu behar-ko.

POSTARIA BASERRIETARA.-

Bigarren berria lehendabizikoa-ekin lotuta dago nolabait. Iraila ezkeror, eskutitz, jiro etab. baserrietara eramaten hasi zaigu postaria. Berri ona beneta, baserriarren eskubideak kontutan harturik. Ez dago desberdinta-

sunarik zergak ordaintzerakoan. Zergatik bada desberdintasunak zerbitzuetan? Gauza anitz gertzen da egiteko baina ezin ukatu zerbait aurreratu dela zerbitzu berri honekin.

ZENTRAL HIDRAULIKO BAT BERRIRO LANEAN.-

Aspaldidanik gelditurik dagoen zentral zahar bat (Igantziko Bontetatik Sunbilla aldera dagoena, Minetako zubiaren ondoan) berriro lanean paratzea pentsatu dute, eta obrak dagoeneko nahiko aintzinduak daudela erran dehar, teilatutako berria eman baitiote, kanala moldatu etab. Makinaria sartzea da azken pausoa. Enerjia lortzeko modu garbi eta merkeoa, baldin eta ibaiaren baldintzak kontutan hartzen badira (guttieneko kaudala uztea, batez ere). Amorrainak ere bizitzea merezi dute.

IGANTZI ETA ARANTZAK IDAZKARI BERRIA.-

Ez da berri txarra ondoko hau



Minetako zentrala berriro ere martxan jarriko dute.

ere. Jakina da duela hilabete batzu "vacante" a atera zela Idazkari postu hau betetzeko. Bi lagun bertzerik ez ziren posturako aurkeztu eta azterketara bat bakarrik, Pilar Txueka hain zuzen. Bakarrik egoteak aliziente handi-

rik ez eman arren bikainki gaintu zuen azterketa. Beraz, berarentzat da Idazkari postua. Euskalduna denez, eta alfabetatua, gauzak nolabait aldatuko direlakoan gaude.

SUNBILLA

ESKOLA.-


Ikasturte honetan O.H.O.ko seigarren mailako umeak herrian ber-

tan gelditzen direnez bi ikasgela berri egin dituzte: batean hasiera zikloko umeak gelditu dira eta bestean beste ekintza egiteko lekua gelditu da. Moldaketa hau egin denez maisu berri bat ere etorri da. Xabierrek 3. eta 4. maila bere gain hartu ditu

eta honela 5. maila arte dena euskeraz ematea lortu da.

LAPURKETA.-

Lapurrak Sunbillara ere ailegatu dira. Oraingoan Farmazian sartu ziren eta nombait ez zen lehendabiziko aldia hau egiten zutela zeren eta zuzen zuzen drogazaleak hartu ohi dituzten botiken kutxara joan bait ziren, dena huts-hutsik utziz eta zenbait diru eramanez. Hau bezalako gertaerak herri hauetara ere ailegatzeko ari direnez komenigarria da botikarioen egoera larria azaltzea behartuak daudelako "caja de estupefacientes" deiturikoa botikadendan gordetzen larrialdietan erabiltzeko, baina jakina da drogazaleek botika hauek erabiltzen dituztela eta botikadendetan daudela dakitenez noiznahi lapurtzen dute. Hoberena izango litzake botika horiek beste leku izkutu eta ziurtatu batean gordetzea zeren eta bestela arazoa ez da konponduko eta botikarioak beti arriskuan bizi beharko dute.



GOIZUETA

Hemendik aurrera Goizueta ere TTIPI-TTAPA-tar herri bat du.

Orain arte goizuetarrok Baztan, Bidasoa eta Malda Errekako herri- en berriak jaso bakarrik egiten bagenituen, elkarren berri izan- go dugu etorkizunean. Aurkezpen honetatik agurrik beroena luza- tzen dizuegu denori.

DANTZAK.

Azkeneko bi urte hauetan lan haundia egiten ari dira Goizue- tako gazte batzu neska-mutikoei dantza erakusten. Humore Ona El- kartearen barrenean, Rosa M^a Ola- izola eta Bakartxo Etxegia zaz- pitik hamabost urte bitarteko berrogei neskari erakusten ari zaie, eta Patxi Iribarren eta Jesus M^a Etxegia seitik hamabost urte bitarteko hemeretzi mutiko- ri, Asier Mendizabal txistulari dutelarik.

Norbaitek Humore Ona Elkartea- ren dantzariekin egon nahiko ba- lu, Patxi Iribarren-gatik galde- tuz, 514072 telefonora dei deza- ke.

Goizuetako dantzarien alde - hainbeste lan egin zuen Antton Lujanbio zena, TTIPI-TTAPA hone- tatik gogora dezagun.

MUSIKA.

Hogeita hamar neska-mutiko di- ra, seitik hamalau urte bitarte- koak, musika ikasten ari direnak. Imanol Kamio ari zaie lehenbizi beharrezko solfeoak erakusten au- rrerago esku soinuak edo pianoa jotzen hasten direlarik.

Badago, baita ere, trikitixa eta pandereta jotzen ikasten ari diran beste neska talde bat.

LIBURUAK.

Bi lan argitaratu dira azkenaldi honetan Goizuetarekin zerikusirik badutenak:

Tafailako Altaffaylla Kultur Taldeak bultzaturik hamaika la- guntzaileren artean egindako "Na- varra 1.936. De la esperanza al terror" bi aleko liburuan, Jose Jabier Etxeberriak eta Bizente Hernandorenak Goizuetari buruz egindako lana agertzen zaigu.

Jesus Arraiza Frauca-k ere, Iruñean aurtengo udazkenean ospa- tu ziren Historia Iardunaldieta, "Goizueta. Un pueblo navarro en la Gerra de la Independencia,

según un manuscrito de la época. (1.808-1.814)" izeneko lana aur- keztu zuen.

KIROLAK

Notizi ugari gertatzen ari dira kirolaren alorrean Goizuetan az- ken bolada honetan.

FUTBOLA.

Futbolari dagokionez, gure le- henbiziko mailako hiru futbolari- ak notizi izan dira. Azaroaren 16an Atotxan Erreala eta Osasu- naren artean ospatu zen partidua gure hiru jokalariek han elkartu zituen, eta, aukeraz baliatuz, TTIPI-TTAPA-koek haiekin elkarriz- ketatzera jo genuen Donostiara. Hona hemen esandakoak:

Joxe Mari BAKERO. (Errealaren jokalaria).

-TT-TT: Zer moduzkoa gaurko par- tidua, gustora jokatu al duzu?

-J.M.: Osasunaren aurka beti jo- katzen dut gustora, ni ere hangoa bait naiz. Nik uste dut Osasunak gaur ere ongi jokatu duela eta gure meritua irabazteagatik haun- dia izan dela, beurek ere izan bait dituzte golak sartzeko auke- rak.

-TT-TT: Gaurko partidua utzita, selekzio olinpikora zoazela leitu



Goizuetako dantzariak.

dut. Indartsu zaude, ez?

-J.M.: Bueno, aurtengo udaran operatu ezkerotik nahiko lan eduki dut ongi jartzeko baino azkeneko hilabete honetan oso ongi nago eta bakarrik golak sartzea falta zitzaidan eta, kasualidadea, Osasunaren kontra hasi naiz berriz ere.

-TT.TT: Notizi ona zure anaia Xantik Errealarekin fitxa egitea ez?

-J.M.: Bai, beretzat gehiena, neretzat ere bai noski, anaia dugu eta, baina konturatu behar dugu bera hogeitaz kanpoan egon dela eta beretzat honera etortzea pozik haundiena izan dela. Bera pozik dago eta ia orain entrenatzaileari zer iduritzen zaion eta ia jokatzeko duen.



Joxe Mari Bakero futbolaria.

Xanti BAKERO

-TT.TT: Alicanteko Herculesetik Donostiara, etxera esate baterako, ez?

-X: Bai, Donostia etxea bezala da naiz eta Goizuetan bizitu izan. Donostia eta Goizuetan, Nafarroa, neretzat biak etxea dira.

-TT.TT: Esan al liteke zure kasuan, saiatze-saiatzearen fruitua izan dela?

-X: Bai, esan liteke. Gazte gazte-tik kanpora atera izan behar izan nuen eta orain Errealara etortzea ailegatu da, eta uste dut, esan

dutzen bezala, bederatzi urtez kanpoan ibilitakoaren fruitua hartzea dela.

-TT.TT: Ze esperantza aurtengo?

-X: Ni ilusio haundiarekin etorri naiz. Hemen jokatzeko zaila dago, Errealak jokalariei oso onak ditu. Ikusiko dugu, ni saiatuko naiz eta ia besteak zer esaten duten gero.

Joxe Manuel ETXEBERRIA. (Osasunaren bigarren entrenatzailea).

-TT.TT: Zein lan egin behar duzu orain Osasunak?

-E: Pedro M^a Zabaltzaren aginpean nago, berari laguntzen eta berak ematen dituen aginduak betetzen: beste ekipori buruz informazio eman, gureaz hitz egin...

-TT.TT: Aurrera jarraitzeko asmo-

PILOTA.

Joxe Julian SALABERRIA, hemeretzi urteko goizuetarra, pilotari afizionatu izatetik profesionaletara igaro da. Urriaren 30ean estreinatu zen Labrit pilotaplatzan Lazkano eta Luke-ren kontra, Arretxek atzetik lagundu ziolarik. Bere eritziak jaso genituen elkarriketa batean:

-TT-TT: Pauso hau emateko gogorik izango huen, ez?

-J.J.: Bai, banituen zortzi bat hilabete pauso hau ematekotan nengoela baino problema batzu izandu nituen eta ez nuen pasatzerik izandu; orain soluzionatu ditut eta hasi naiz.

-TT-TT: Zer espero duk pilotari profesionala izanaz egitea, afizionatuetan egingo ez huenik?

-J.J.: Igarotzen diran guztiek espero dutena: lehen baino gehiago jokatu, igo, eta primerara ailegatzea.

-TT-TT: Bai al duk meta bereziren bat, helburu bat urrutirako?

-J.J.: Nik espero dit ahal dudan gottirena igotzea; batzuk suertea izaten ditek eta beste batzuk estankatuta gelditzen dituk...

-TT-TT: Jokatutako partidua hauetan, zer moduz ikusi duk hiru burua?

-J.J.: Oraindik hiru partidua bakarrik jokatu ditut. Lehenbizikoan arrunt nerbioso aritu nintzen, bigarrenengan hobekixeago eta hirugarrenengan arrunt lasai eta ongi. Pittikan, pittikan sartzea espero dut.

Nafarroako herrien arteko pilota txapelketaren finala, Oberena taldearen kontra irabazi eta gero, Goizuetak beste bi kanporaketa jokatu zituen Arabako Villareal eta Donostiaren kontra, hauek ere irabaziz. Momentu honetan Euskalerriko finala jokatzeko gauden Oberenaren kontra, hauek izan bait dira Bizkaiako Zaldibarrekin izandako istiluetatik aurrera atera direnak.

TTIPI-TTAPA hau argitara ematen denerako irabazle zein gertatu den jakingo bada ere, honez gero badakigu lehenbiziko partidua Iruñean jokatu dela eta Goizuetan bigarrena. Irabazi ezker, lehenbiziko txanda izango litzateke Goizuetak Euskalerriko mailako herrien arteko pilota txapelketa bururatzen duela.

rik bai al duzu hurrengo urteetan?

-E: Bueno, Osasunak seguru aski segituko dut. Ez dakit lan honetan edo beste batean baino taldearen barranean segituko dut, seguru aski.

-TT.TT: Zer moduzkoak hamalau urte hauek?

-E: Denetatik izan da, hirugarren mailan Osasunak hasi nintzen eta bigarrenetik lehenbizikora pasatu naiz Osasunarekin. Denetatik ezagutu dut, momentu onak, txarrak...

-TT.TT: Momenturik goxoena...?

-E: Lehenbiziko mailara igotzeko egin genuen denboraldi hura.

ITUREN

ITURENEN "BERRIAK" EGITEN.-

Zenbat lagun bildu gara? Bi, hiru, lau,... elkartzen joan garren neurrian zera:

- Zer, "berriak" ez?
- Bai egin beharko ditugu.
- Baina zer paratuko dugu.
- Hemen ez da deus gertatzen.

Herriko ostatu batean gaude eta jarri gara elkar begira. Ostatuan bat sartzen den bezain agudo ... galdemodua:

- Aizul ze paratu behar dugu Ittongo "berrietan"?

Bat gure taldea hurbilduko da, hurrengoa berriz mostradorea laisterka ui, ui, ui eginez.

Eta berriro, burutan: berriak, berriak, berriak...

Noizbatean, bat hasten da:

- Ez badugu paratzen Melitonek kotxe berria erosi duela edo horrelako zerbait... hemen, gertatu, gertatu... ez dakit bada.

- Bai! Horixe hasi behar dugu kontatzen. Beno, beno...

Ostalariak mostradore gibeletik berriz, hau erraten digu:

- Hara! Paratzen ahal duzue Ittongo plazako platanoen adarrak moztu dituztela. Urtero albienteak egiten duen lana da, San Martin inguruan.

- Bai! hala da. Xerri hiltzea bezala. Itunen garai honetan hasten bait dira. Gaur gero, zenbat etxetan hil ote dituzte?

- Eguraldiak txartzen hastekin batera, txerria hil eta aitzaki horretan beste pizka bat egin. Poliki! Aurten, Martzelo eta ... k, txerriari kontzen egonen dira, heldu den urtean berriz... beste mota batetako zerri artean egon behar. Ittunen, sei mutiletatik, bi hauek soldaduskara joan beharra ez dute hobea.

Lehen denak joan behar izaten zuten, hori ere ez zen kontua, baina orain makurrago pasatzen da. Zein libratuko zail! Eta joan behar duenak hantxe uzten ditu bere gaztarako 15-18 hilabete, inork ez luke joan behar, hau alukeria!

- Soldaduska egin arte, ezin duzu

bertze ezer egin. Egin da gero zer?

Berriro ere langabezira edo mendira lanera eta hau ere ez dago erraza.

- Batzuk hasi dira Doneztebera joaten, langabezian daudenak dira.

Sikiera hauek ofizio bat ikasiko dute.

- INEMek antolatua omen da. Hilabeteen dirulaguntza ematen dute eta bide batez zerbait ikasi: Ileapaindegia, jantzigintza eta

- Obra kontuan ari garenez, eskolakoa ere aipatu beharko genuke. Aurrak eta irakasleak hotzaz pasatuak egon behar dute. herriko etxeko lanak oraindik akitzeko daudelako. Leihoak plastiko txar batez estaliak eta pertsianak itxita ari dira, berehala hor hasiko dira doministikuka eta eztulka.

- Eta medikuaren kontsultara pasa zaitez, oraindik pisutan jarraitzen dute. Urtea pasatu da kontsultako obrak egiten hasi zire-



zeramikako klaseak daude.

- Adizue! Ez litzeke gaizki egonen erakusketa bat antolatzea ikastaroen bukaeran. Eta, Vliesenako langileek eskeini duten lokaletan paratu. Bederen ikustea joanen ginen, jantziak, orrazkerak, katiluak...

Denbora pasatzen ari da eta...

- Solasean ari gara majol Idazten ere hasi beharko dugu bada. AEKide hauek... Deus ez zela gertatu Ittunen baina zerbait gogoratu zaigu.

Eta elizekoa ez dugu aipatu ere egin.

- Bai lehengo igandeko sermoiean apezak, erran zituen diru kontuak nola egin ziren. Teilatua konpontzea, ez dakit zenbat milioi kostatu zela, arkupea berriz, ia beste hainbeste, denera bost milioiko gastuak edo. Oraindik lanak bukatzeko daude, barrutik ere xuritzea falta da.

Herritarren artean, 900.000 peza bildu zela zioen..

netik, hilabeteko kontua zela... bail bail! Herri honetan zer pasatzen den ez dakigu, bertze herri-tarrek ba ote dakite? "Ayuntamiento" honek, Udalak, zer nolako politika daramaki? Hauteskundeak ..., hurbil ditugula!

- Bai hurbilago daude Inauteriak. Aurten noski, Emakumezkoak ere joariak paratu eta Zubieta, Aurtizkoen eske joan behar omen duzue?

- Duda!

- Politika? Hemen ez politika eta ez ezer. "Oestea" dirudi, dela hau. Igande honetan, 7an hain zuzen ere, gerra garaian afusilatutako abertzaleei omenaldi bat egin zitzaion, Aurtitzen meza eta bazkaria berriz Sunbillan egin zelarik. Kontutan izanik, hiru afusilatu herrikoak zirela, bada guttienez ikurrina Udaletxean paratu, ezta? Edo omenaldi hori herritarragoa egin, Euskalerrria askatua nahi zutelako hil bait zituzten.

DONEZTEBE

DONEZTEBE

TAXISTA ERRETIRATUA.-

Eugenio San Migelek nahiko lan egin ondoren erretiratu da. Ordezko bezala beste bati eman zion taxista izateko eskubidea, hain zuzen ere Bernardo San Migelari.

INFORMATIKA KONTZENTRAZIOAN.-

Ikasleak eta irakasleak erabiltzeko asmoz, informatikarako ikasgela bat antolatu nahi da. Projektua, Nafarroako Gobernuak Kultur eta Heziketa sailak onartu du, baina hortarako gela apropos bat paratu behar da eta lehen bait lehen gainera, bertzeala Gobernuak ez bait du laguntzarik emanen.

IKASTAROKA.-


INEMek antolatuta zenbait ikastaro ematen hasi dira. Hasieran Vliesenako langileak heuren lokala eskeini zuten, baina ondorio bezala zenbait istilu sortu; total, ikastaro batzuk alondigan ematen direla eta jantzigintzako berriz, Vliesenak.

MALDA-ERREKAKO OSASUN-ZENTRUA, DONEZTEBEN IREKITZEAR.-

Ez da urtebete pasa obrak egiten hasi zirenetik eta iadanik egina dago, argia eta telefonoa besterik ez da falta. Sanitarioak diotenez, hemendik gutxira martxan egonen da.

Bai, hori horrela izanen da baina bertako jendeak ez daki oraindik zer den edizio hori. Anbulategia dela pentsatzen dute batzuk, besteak berriz X izpiak eta horrelakoak egonen direla diote. Jendea solasean ari da, baina betiko moduan, hau da, informaziorik gabe. Egia erran oraindik ez da informazio zabalik eman ez ta publikoki ezer adierazi.

Zentru hau, azkenengo erreforma sanitarioaren barnean burutu da. Erreforma honek, asmo onak adierazten ditu, hala serbitzu egoikiak eskeintzekoa, herria osasu-



Malda Errekako osasun zentroa.

nean mantentzea, eritasunak sendatzea, eritasunei aurre hartzea... Baina egia erran ez ditu medio gehiegirik paratzen. Hain zuzen ere, sanitarioen borondate onarekin besterik ez baitu kontatzen parte handi batean bederen.

Osasun-zentru hau dela eta hemen berri zehatz batzuk:

Hasteko, zentru hori ez da inongo anbulategia izanen. Hasiera batean behinik behin ez du espezialistarik eskeiniko. Ez da Seguritate Sozialaren menpean egonen, Diputazioaren menpean baizik; zentruko gastuak, Doneztebeko Udalaren kontu joanen dira (Doneztebeko Udaleri Diputazioak ordaintzen dioen arabera).

Zentru hortan bertako mediku, erizain, farmazilari eta albaitariak parte hartuko dute. Beraz taldea honela egonen da osatua: Farmazilari bat, albaitari bat, lau erizain eta lau mediku (hauek jadanik lanean ari direnak dira) garbitasun lanak egiteko bat, zeladore eta administralari bat berriz, irekitzeko orduan kontratuak izanen dira. Hala ere, langile gehiago behar dela nabarmentzen dago, errate baterako, laguntzaile soziala.

Beraz, Malda-Errekako zentru hau lau partidu medikutako herri-tarrei egokitua dago: Sunbilla, Doneztebe, Labaien eta Ituren-

goari hain zuzen ere. Baina honek ez du erran nahi, gaur egungo kontsultak kendu egingen direla. Herrietan lehen bezala medikuak pasatuko du kontsulta.

Bakarrik, Doneztebeko medikuak eta erizainak pasa beharko du kontsulta Osasun-Zentruan. Hala ere zenbait gauza desberdin zentruan egingen dira eta hortarako herritarrek bertara joan beharko du. Errate baterako, odol-ateratzeak Iruñeara joan gabe, bertan egingen dira. Emakume haurdunak ere, Zentrura joan beharko dute amatasunerako prestatzeko. Herrietako mediku, erizainak guardiak ere Zentruan egin beharko dituzte.

Herri hauetako sanitarioak orain dela urte bete baino gehiago talde lanean ari dira. Osasun-Diagnostikoa deritzana egin dute, estudio honen bidez, bertako egoera sozio-ekonomiko-kulturala aztertu dute, bait hilkortasuna eta zertaz eritzen den jendea ere.

Sanitarioak bilerak egiten jarraitzen dute, serbitzu egokiak eskeintzeko asmoz. Hauen burutan haxe dago: herritarrekin nolabait kontatu behar dela eta lehen bait lehen informazio egokia eman. Bederen, ahal den eta jende gehienak jakin dezala nolako aldaketak emanen diren eta bidenabar jendeak ere parte har dezala.

URROZ LABAINGO INTZINERADOREA

Malda-Errekan badugu
sobera zaborra,
ez dugu nahi hementxe
horrelako altxorra.
Intzineradoreak
ekarri du zorra,
oraintxe sortu zaigu
istilu gogorra.
(Doinua: "Maritxu nora zoaz")

"Ezpelura" taldeak Labaingo lurraldeetan zabor intzineradore bat paratu behar zutela eta, mahai-inguru bat antolatu zuen zenbait puntu argitu nahian; honen funtzionamendua, kutsadura maila, osasun baldintzak...

Argibide horiek emateko pertsona egoki bezala kontsideratu zituen Diputazioko arduradun bat (Sanz jauna), hau bait da zabor bilketari buruz soluzio bat bilatzen hasi zenetako bat; "Lorea taldekoak, hauek bait dira zabor intzineradoretik aparte beste proposamena eskeintzen zutenak (Eta gaur egun, Malda-Errekan zabor bilketa selektiboa aurrera daramatenak); eta hirugarren partaideak osasunkidetzakoak (Roch jauna), hauek osasun aldetik eskeintza guztiak zituzten abantaila eta eragozpenak aztertu zizkigutenak.

Talde bakoitzak, han bildu zen jendearen aurrean, bere azalpena egin zuen:

a)Diputazioko Sanz jaunak esplikatu zuen zabor intzineradorearen projektua aurrera eraman baino lehenago lur iragazkaitz batzuen bila ibili zirela, baina udaletxeek beren lurrak uzteari uko egin zioten, hori dela eta zabor intzineradorea onartu zen beste proposamen egokiago bat ez zegoelako (beraien ustez).

b)"Lorea" taldekoek berriz bere azalpenak, beste alternatiba batzuk badaudela esplikatzuz egin



Doneztebeko zabortegia.

bilketa aukeratuan bildutako guztia berriz erabiltzeko gai izatera bihurtzea da.

zuten. Eskeintzen duten alternatiba zabor bilketa aukeratua da (paperak-paperekin; kristala-kristalakin; trapuak-trapuekin...) eta honekin batera joango litzateke zabortegi kontrolatua (materia organikoa konpost bilakatzeko era egokia). Proposamen honen ondorioetako bat zabor

Bestalde, intzineradoreak zitu- en eragozpen guztiak azaltzen saiatu ziren (pertsonentzat kaltegarriak diren toxina botatzekoak-

c)Roch jaunak berriz, bai Diputaziokoek eta bai Loreakoek egin-dako proposamenen azterketa "zientifikoa" egin zuen, guztien alde onak eta txarrak aditzera emanaz. Adierazi zuen, osasun aldetik aztertuz Lorea taldeak eskeintzen zuen proposamena zela egokiena.

Hiru partaideen esposaketaren ondoren nolabaiteko eztabaida

sortu zen han bildutako jende artean. Bazen Labaingo talde bat zabor intzineradorearen aurkako jarrera gogor mantentzen zuena, ez bait dute nahi beraien lurraldeetan horrelako tresnarik paratzerik. Labaingo taldea, hizlariak eta bertan aurkitzen ziren zenbait alkateen artean eztabaida sutsu bat burutu zen, honen ondoren mahai ingurua akitutzat eman zen.

Ezpelura taldeak intentzio onean, jendea deitu zuen hauxe ikustean. Denak aritu ziren modu modu xelegean, baina zabortegia dugu sudurrean.



Total, beti gabe, ETB erribera-koentzat. Por zierto... jakin dugu edo ... bada zurrumurru bat ...goi politikakoa edo. Esaten dutenez, sozialistak eta nafartar nazionalistak akordio batera ailagatu ziren, Erasungo antenatik ETB jartzeko baino, politikako

Neguan ez ETB ez egurra, zeren, hara zer nolako loteak eman dizkiguten oraingo hontan ere. Pagu zaharrak, galantak, makilipurdin ... ez pistarik, ez pistaren arrasturik. Ez naiz bertaraino ailegatu baino, esaten dutenez -eta hitz ugariak aditu diramandoz atera behar, kilometro

Eta bigarrena, mandoarena. Ez naiz ni behin ere mandoekin aritu Beno, ikasi behar. Hasi nintzen han hemenka galdezka, egurra dela eta ez dela, eta benetan ikaratua gelditu naiz. Batzuek diotenez, Zubietako asto eta mando gehienak "antirrobo" delako hori ezarria omen dute eta hara, zerrenda txiki bat; L. etxekoa adibidez, ez omen da behin ere aurreraka ateratzen eta sototik atzeraka atera behar. O. etxekoa berriz, atzeraka ez da sotuan sartu urteetan, nahiz bertako bi morrosko galantak egun batean ahalegin guztiak

Eta pistaren hasiera noizko? Zoazte jakitera. Egon lasai, oraindik projektua ez dakit nora bidali behar omen da, gero subentzioa edo laguntza eman behar dute, bestela pista hau jende guztien pentsamentuan jarraituko du.

ONDDOAK

Bat, bi, hiru, hogeï berrogei..
kilo onddo eta gehiago ere aurkitzen zuten edozein egunetan mendira joanez gero.

Eta zein onddo ederrak. Zubietar batek 1'700 gramoko onddo zoragarri bat aurkitu zuen, bail 1'700 gramokoa, egia da. Hura zen onddoa, museo batean erakusteko modukoa.

Bainan museoan erakutsi behar-
rean hobe da jan-aldi eder bat
egin. Ze gauza goxua den onddoa,
nahiz tortilla batean, nahiz to-
matearekin, hutsik... bakoitzak
bere gustora.

Nahiz eta egun guztia ondoak jaten egon, ez dago onddo kilo guztiak jateko biderik. Horregatik konjeladorean sartzea da, hoberena. Honela beste jan-aldi bat egin dezakezu gogoratzten zai-zunean. Idazten ari den hau badoa lasterka zartai onddo bat jatera, agur eta gero arte.

USO NUKLEARRA

Aurtengo uso ehiza arriskutsu xamarra izan da, jateko behintzat. Usoak, aurtan eta hurrengo bost urtetan "Chernobilitis" gaitzakin bait datoz.

Dirudienez gaitz hau Errusiako Chernobil Corporation Ltd Cia S.A. zentral nuklearrako erradi-
akibitateak sortu du eta ipar-
raldeko izaki, jaki eta beste
gainerako gauzak kutsatuak izan
dira, hortaz, iparraldetik etor-
tzen diren usoak ere erradiakti-
bitatez kutsatuak datozte eta
ehizturi guztiak nahiko kezkatu
eta larri ibili omen dira, usoak
jan eta gaixotuko direlakoan.



bat edo bi. Hainbeste ez badira
ere, badituzte nik bi puntu argi-
tzeko -bata, Zubietako Udala,
herrikoetxea bada, herriaren zer-
bitzuan egongo da, nere ustez,
baina egur afer hontan, politika
berezi bat erabiltzen du. Egur
eta leku onak direnean, etxe ba-
koitzandako karruak banatu eta
denak kontent, bale, ez dago ezer
txarrik esaterik. Baina lote ba-
natzea denean eta etxe gutxitako-
ak hartzen dutenean, haien artean
beste erremediorik ez dutenak,
badirudi ipurdi bilaka aritzen
direla eta Gorospilen ez bada,
Makilipurdian. Total, guk terre-
noa garbitu -amenazekin gainera-

egin, ufa eta ifa bulkaka, astoak
aurreko bi anak airean jarri
arte -atzekoak berriez lurrari
itsekiak-, total, gehiago ez lu-
zatzeko, aldiro karrua eskuz sar-
tu, bete eta atera behar izaten
omen dute. Hirugarrena, K. etxe-
koa, lau begikin begiratu behar.
Deskuido txikiren bat izan ezke-
ras! asto-kozka! edo ostikoa ...
eta kargatzen baduzu, erne, astoa
beti bide ertzetik joanen da eta.
Hau bizi iraulia!

AURKIDIKO PISTA

Noizbait egingo ote dute? Hauxe duk martxa, orain dela urte bat edo gehiago, (ez dakit noiz).

Beren emazteak ere kezkatuak daude senarrak hilen direla eta. Hau bai dela enamoratua egotea, beste andre batzu berriz gustora emanen liokete baina beren senarrak ez dira ehizan ibiltzen.

Aranaztarrak pentsatzen hasiak dira guk egindako kanpaina izanen dela, baina kasorik ez egin. Hau dena Ekaitzari buruzko eztabaidaren interesa okertzeko da. Beurek badakite Ekaitzan dauden Zubieta-ko mugak Arantza aldera daudela eta ez dute beste herrietako jendea nahasi besterik nahi. Eta zergatik hau dena? Ekaitzako egian dauden ehizako postuak beurenztzat nahi dituztelako.


Negoziaketa hitza modan dagoela eta zera proposatuko diegu aranztarrei: beste lau urte barru postuen jabetasuna gordetzeko, usoak, oilagorrak edo nahi dutena bota eta jateko, eta epe hori pasata, aranztarrerik baldin bada munduan, dozena pare bat urtez zubietarrentzat jabetasuna firmatzeko.

GU, bitarte horretan, hobe dugu basurdetara dedikatu eta harrapatutako hegaztiak, saldu aranztarrei edo... Gure borondate ona erakusteko, Chernobilitisen aurka errezeta milagroso bat emanen diegu. Uso adibidea: Lumatu antigas kareta jarrita, lumatzen ari zarela, ura irakitzen eduki eta lumaketa bukatzean -amianto-ko guanteak ez badituzu, Laminazio-koak erabili- bi sartu ateraldi egin. Ura urdintzen bada, lasai; gorritzen bada, usoa txakurarentzat; beltzatu ezker, hainbeste maite duzun bizilagunari erregalatu.... Ez horregatik!

ZUBIETAKO KIROL GIROA, kultura, ...eskuarte izaten duguna.

Ttipi-Ttapakoek esan digute goizuetarrak hasi behar omen direla afer honetan, Ttipi-Ttapako munduan, ongi etorriak! eta Bakerori edo maila handiko kirolariak elkarriketak egin behar dietela. ..Ez pentsa gu gutxigo garenik! Oraingo hontan ez dugu entrebistarik baina...

Lehen dena laisterka eta laisterkako apostuak baziren, bolara hontan pilotakoa dugu, jo ta kel palaz gehiago eskuz baino, ez bait gara eratsundarrak! Esan



Ekaitz gailurra.

artekoa (Periko-Pedro). Adintuak biak, artzai famatuak, badute zera bat bata besteen aurka, nor artzai hobea nor indartsuagoa. Lazaro boza ederra, tartamudoak mingain zorrotza, beti agerian. Total, desapio bota zutela, eskuz jokatu behar, ia nor zen Zubietako hirugarren adineko txapeldun.. Batean euria zela, bestean jendarira sobera, tartamudoak gorde zituen bien seinaleak, a duras penas lortutakoa: por incomparedencia del contrario, daños y prejuicios... eeeefectivo!!!

Ez gero sinistu hemen bukatzen direnik! Herriska hontan urriro guztietan ez dakit zer molako mobilizazioa sortzen den -Ahaztu gabe, soldaduskan lau sorteatu eta bi libratu; arrunt kontent omen daude patria serbitzera joan behar omen direnak-.

Aurten euskara baztertu dugu eta "artes y oficios"etara jo: 5 elektrizista, pelukera bat (ileapaindegitzaila esan beharko genduen?) eta ez dakit zenbat jostun. Lehendabizikoak Elizondoraino joaten dira, bigarrenak Doneztebera eta hirugarrenak herrian bertan, sekretari etxean, traka, traka, traka... Iskanbilak ere egon dira. Batek esan omen zuen, besteak egin (ni corta ni perezosa), hirugarrenak gaizki hartu... Total, herri txikien gaitza, ez aspertzeko manera. Okerrrena zera da, egunero ikusten garela ia eta begitarteko hori gordetzen dugula. Ez du pena merezi zeren, azken funtsean, ez dago bat bestea baino hobeagorik eta denak por el estilokoak gara. behar da, edozein modutan, Jose Mari, sekretarioa, dugula apostu

gehienek erdia, agortzen ez den apostu iturria. Batzuek irabazi, besteek galdu, aurrera segi beti, baten kontra, biren aurka ... Ikusi dugun azkena, Saldisan izan zen, Zubietako frontoia txikia gelditu da eta... Saldisko tabernariak,... estalpeko frontoia... Ferminenak -bi ziren- irabazi zuten baina egongo da, seguraski rebantxaren bat.

Ikusi ahal ez genuena, bestea izan zen; Lazaro eta Tartamudoen

MILIOI DANTZA

Ez ginela milioetan arituko baina, azkenean, ezin. Ederra baita!! Hara diru dantza:

Ura.....	53.000.000
Udaletxea ...1986.....	3.000.000
1987.....	2.500.000
Frontona.....	3.300.000
Kontsulta.....	2.500.000
Aurkidiko pista.....	24.500.000
DENETARA.....	89.800.000 pezeta.

Nundik atera behar? Bi posibilidad daude, auzolanean, egun batean 44.900 lagun, edo, ta-ta-txin, subentzioak. Urarena, azkenean, estadiak ordaintzen omen du eta Aurkidiko pistarena Diputazioak, partikularrak eta udaletxeak.

Beste konponketak ere, badute subentziona eta zorra gelditzen bada, geldituko baita, txikia izanen dela diote. Hori bai, konpontzeko urratu behar dela eta, ia nor den Zubietan lasai bizitzeko kapaza. Biba el progreso!

Denok dakigun horrek burua altxatuko balu! Esatekoak esango zituen. Nork aterako du aurtengo larra? Nork errautsa botako?

Ai-Ai-ai-ama, Zubietako paretak!

SALDIAS

ANTENAKO BIDEA

Gogorra da hau gerol Iruñako bulegotan bereizten dutena aurrera eramaten dute, aise gainera. Nonbait handik honerako egin beharrak ez dute hainbeste traba,

eta alderantziz berriz hemendik haratakoak. Zerbait eskatzen denean... zenbat komeri! Komentario guzti hau, antenako bidea asfaltatzen ari direlako da. Hori ez dakigu nork eskatuko zuen, baina ederki paratuko dute, hortan milioiak bota eta Erasundik Ezkurra-Donostetebeko bideaz ezta oroitu ere.

Bail Diputazioa komunikabideaz arduratuko da baina... heuren erabili eta kontrolatzen dituztenetaz, herriaren beharrak eta nahiak berriz, zabor ontzira. Saldiasen antena bidea ongi paratu? bale! Baina orduan elikotero bat jar dezatela bertan, hara-honata, herritarrek mugitzeko.

BAZTAN

ALMANDOZ

BARIANTEA

Obrak mantxo doazela eta soinu eta errauts aunitz iresten ari direla eta.... kexu baita almandoztarrek. Noiz akituko ote dute!

Orain dela gutti, kamioi batek istripu bat izan du eta txoferra larriki zauritua gertatu da, baina alderdi hartako lagunak, ez dira kamioaren itxurari bakarrik begira gelditu. Kamioiak zeraman zama ikusita, "kamiseta eta kantzontzilo" hornitu dira denboraldi baterako. Batek zionez, kalitate onekoak dira... eta gainera, dohainik hartutako astoari.

ERRATZU

ADUANA ZAHARRA bezala ezagutzen dugun etxea, Iriartenea, lurrera heldu da. Teilatu zati bat erori da eta paretak ere hondatzen ari dira. Hala ere, azkenean uralitazko teilatua jarri diote. Iriartenea, 1724. urtean, Gaston eta Goienetxetarrak egindako jau-regi antzeko etxe bat da.

Estilo hortako jauregi gutti daude alderdi honetan. Bakarrik bertze bi daude; bat Iruritan eta bertzea Oieregin eta biak nagusi berarenak.

Beno! galdegingo duzue, ia nola egon daiteken horrelako etxe ederra ia lurreratua. Ba,.... historia laburra du. Militarrek hartu zuten mende honen hasieran eta badakizue... jendaje horien eskuetan erortzen den guztia arras desegina uzten dutela. Iri-

arteneakin gauza berdina gertatu da. Eta bukatzeko bi berri labur. Frontoian argia jarri behar dutela eta bertzea, herriko alkate izateko hauteskundeak bertan direla eta mugimenduak nabaritzen hasiak dira herrian. Dударik gabe 2 behintzat aurkeztuko dira; bat UPN aldetik eta bertzea abertzalea.

ARIZKUN

Arizkungo talde kulturalak, Maurizio Elizalde txistulariari omenaldi bat eskeiniko dio heldu den udaberri aldera. Antola-

tzaileen erranetan, egitarau sendoa prestatzeko asmoa dute, kontutan izanik, Mauriziooren lana euskal folklora arloan haundia izan dela.

ORONOTZ-MUGAIRE

Kanposantuaren arazoa, problema larria bilakatu da herri honentzat. Lekurik ez (kanposantuan!) Arazo honi buruz, bertako kontzejalaren fundamendu guttiar kexu daude herritarrek. Orain (azerak) konpontzen hasi dira.

GARTZAINGO BESTAK.-

Baztan bailarako azkenak. Beti



bezala umore ona egoten da nahiz eta aurten hotza eta euria egin.

KOLDO GOIENETXE, APOSTUAREN IRA-BAZLE.-

Abenduaren 6an burutu zuten kriston apostua, Koldo Goienetxe, Amaiurko lehoia eta Kepa Arizmendi. Forteneako taskeroaren artean. Pentsatua zuten bezala, proba, Txokoto auzoko karriketatik barne zuten, amaiurtarrak irabaziz.

ELIZONDO

URRIKO FERIAK.-

Baztan-Bidasoa eskualdeko lehenak izan ohi dira. Ostiralean hasi eta igandera arte luzatzen dira. Egunik garrantzitsuenak lehenak izaten da azienda feria egoten bait da.

Ostiralean, argitu bezain agudo, tratulariak eta nekazariak hantxe zeuden beren abereekin: ardiak, behiak, xerriak, zaldiak, etabar. Erran behar da, urtetik urtera, feriara ekartzen den animala kopurua ttikituz doala. Tresnak, berriz, gero eta ugariagoak dira: traktore, auto, motor, motozerra, e.a.

Arratsalde partean pilota partida bikaina ikusi ahal izan zen. Besta on guztiak dantzaldian bukatu behar omen du; aurten, Pilotalekuan ez zen egon martxarik. Udaletxeak debekatua baitu; horren partez, Saskaitz plazan soina egon zen Migel Iparragirrerekin.

Larunbatean "Atso feria" egoten da: baserri eta herrietako jendea goiti eta beheiti ibili zen, puestoz puestu, batzutan erropak erosteko, bestetan probatu eta uzteko. Erropaz aparte, bertzerik ere bazegoen: diskoak, kasetak, erlojuak, aizkorak, txurro saltzaileak, e.a.

Nahiz eta ia urtero euria egin, aurten ez gara busti.

ELIZONDOK AITA DONOSTIA OMENDU.-

Azaroaren 23an ospatu zen Elizondoko omanaldi eder bat. Aita Donostia omendua izan zen.

Baztan bailara osoan zehar ibilia zen, bordaz borda, euskal

kantu zaharrak biltzen. Elizondoko Koralarekin lotura handiak zituen A. Donostiak, batez ere bere zuzendariarekin.

"Elkarrizketa musikala" da oroikarriaren izena. Xabier Santxotenak egindako lanak, Euskal Herriko zeinuak kromlech barruan kokaturik agertzen ditu. Musika tresnak, nola ez: txalaparta eta adarra. Hiru metro eta erdiko monolitoaren gainean jarri da eskultura hori.

NAFARROAKO EUSKAL KANTU LEHIAKETA.-

Baztandarren Biltzarra erakundeak, Leitzako Aurrerak eta Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartek



Arizkongo Txuputo karrika.

antolatzen dute lehiaketa hau. Honetan parte har dezakete haur, gazte, nahiz pertsona helduek.

Hor ari dira herrietan gazteak jo ta ke kantuak ikasten edota hobetzen.

AZKEN BERRIA

Baztango baserritara doazten pistak, breaz estali behar dituzte. Hortarako 300 miloi pzt. gastatuko ditu Diputazioak.

Gauza honek, ekarriko ditu ondorioak heldu diren hauteskundeetan, batez ere dagoen desinformazioagatik. Betiko manipulatzaileriei esker Diputazioak ordaindutako obra hauek, Iturraldek egin balitu bezala adieraziko dute baserritarren aurrean.

BAZTANGO MENDIGOIZALEAK

Orain arte Baztango mendigoizaleok ez gaude talde edo Club bezala legalizatuta, eta lehenengo egunean bilera bat egin genuen

arazo hau konpontzeko. Baina jende gutti zegoen eta beste egun batetako utzi dugu. Arazo hau nahiko garrantzitsua da eta konpondu beharrean dago, ez bagera talde bezala legalizatzen bakoitzak bere buru ibiliko da mendian, eta ez dugu diru laguntzarik ukatzen eta ez gara organizatuak egingo. Horrengatik garrantzitsua da legalizatuta egotea eta Baztango "Club Deportivo"tik kanpo.

Orain arte Baztango federatuak Sunbillako "Ulibeltza" taldean gaude, beharrezkoa bait zen hemen talde bezala sortzeko bi urtez beste talde batetan egotea, legeak horrela diolako, hemendik aurrera taldea sortzen badugu ez dugu arazorik izango.

Beste aldetik hemen egiten ditugun ibilaldien aldetik nahiko ongi gabilta jende aldetik eta ibilaldien aldetik ere bai.

Igandera izaten da ibilaldiren bat, azarotik hasi eta uda arte, gehienetan Baztan inguruko mendi-etan ibiltzen gara, Auza, Saioa, Legate, Aritzakun e.a., egun batean egiten da Auritzera ibilaldia, gero autobusez egiteko itzulia eta beste egun batean, Belagua aldera, autobusez noski. Hauak dira normalean egiten direnak, gero bagara beste bost edo sei bat Pirineoetan ibiltzen garenak eta eskaladan ere pixka bat, egun batean burua hautsi arte.

Oso interesgarria da mendigoizale izatea eta polita ere bai, aunitzetan jendea aspertuta egoten da larunbatean Bordatxora eta igandean Bordatxora eta gaitz hori konpondu daiteke batzuetan: mendira joanez, aste burua pasatzera edo igandea bakarrik. Beroia animatzen zareten.

ZUGARRAMURDI

KANPOSANTUA BERRITUA: LUJOZKO
HOTEL BAT.

Lehen herri gehienetan kanposan-
tuak eliz-inguruetan izaten ziren
(orain ere badira zenbait herri
hala dituztenak; Ituren, Sara...)

Baina Zugarramurdiarrek joan den mendeko bukaeran pentsatu zuten heuren hilak, toki lasaixago batean hobeki egonen zirela, eta ez han, herri erdian, ostatu guztien tartean, musikako kioskoaren gaineko aldean; eta hala, lekuz aldatu zuten orain den tokira eramanez.

Ordutik honat aldaketa gutxi egin dira, hilobiak berritu eta abar. Baina orain dela hilabete batzuk, sekulako lanetan ari dira: pareta zaharra botaz handitu dute zati eder bat 20 hilobi gehiago eginez; lehenago zen ate txar baten tokian errota zaharreko harrizko arkua ekarriz plantatu dute arras sarrera polita; hilak pausatzeko etxola ere arrimatu dute, harriak agerian utziz eta etxe txiki polit bat iduri du orain; eta deus ez faltatzeko, sartu dute ur xurruxta bat, harrizko bataioki pila batean putzua egiten duena.

Orain gure kanposantuak "Avenue Park" iduri du; eta egia, hiltzeko gogoia bezala ematen du.

DISCOTEQUE "LAPITXURI" : Azaroaren hamabostetik honat badugu gorputzari martxa emateko toki berri bat, "Lapitxuri" hain zuzen ere.

Egia esanez, Diskoteka hau ez da berria. Martxan zegoen duela urte batzuk, baina ia zazpi-zortzi urtetik honat ez zutela irikitzen. Orain pixka bat berritu ondoren hasi da martxan.

Lapitxuri Dantxarian dago, muga ondo-ondoan (bere gibealeko aldetik pasatzen da Lapurdi eta Nafarroa mugatzen duen erreka), eta horregatik pentsatzen ahal duzuen bezala, harat etortzen diren jende gehienak beste aldekoak dira; hala ere Zugarramurdiar, Urdazubiarrek eta Baztandarrek ez dira falta.

Noizbait nahi baduzue hemen bar-
na agertu, hemen dituzue datu ba-
tzuk:



Iturengo kanposantua.

Sarrera: 400 pzt. denontzat ber-
din (neska eta mutilak) kontsumi-
ziorik gabe.

Ostatuko prezioak: garagardoak
200 pezeta eta beste pote gehienak
300 pzt.; hartzen ahal dira edari-
ak botilka: Whiskya 5.000 pzt.
eta txanpaina 3.000 pzt.

Musika: franko ona

"KORTATU" ZUGARRAMURDIN.

Alde guztietan bezala, Zugarra-
murdin ere Urte Zaharreko gaua
ospatzen dugu afari eder bat egi-
nez, gero musika eta dantzarekin
bukatzeko.

Normalki afariak egiten dituzten jantokiek ekartzen dute akordiolarri bat edo baita ere, aunitz alditan tokadisko batekin aski izaten da gaua animatzeko.

Baina aurtengo afera seriozagoa omen da: Errekutxeko Manolok esan digu aurtten "Kortatu" ekar erazi behar duela Urte Zaharreko dantzaldia montatzeko bere jatetxean. Pentsatzen ahal duzuen bezala, herri osoa emozionatua dago holako akontezimientuarekin.

Orain ez dakigu inguruko jate-
txeak, ez gibelera gelditzeko,
ez ote dituzten ekarriko holako
famako taldeak. Ez litzake gaizki-
egonen: Errekutxean: Kortatu, Ar-
muan: Barrikada, Mentan: ACDC...


PISTA "X"

Ez ezazula pentsatu klabea edo horrelako zerbait ote den. Ez da mendiko pista bat baizik, eta horrela deitzen zaio lau sarrera ditulakoz: Otsondo, Arraioz, Etxalar eta Zugarramurditik.

Gertatzen dena hau da: Otsondo eta Arraiozko aldeak enbreatuak daudela eta kotxez ederki ibiltzen ahal dela, baina Zugarramurdi eta Etxalarko bideak, harri kozkor eta lohia baizik ez zirela orain arte. Euri pixka bat egiten bazuen, toki batzutan dena lurra zelakoz, ez zen kotxerik pasatzen ahal irristatzen zelakoz, lohia orma balitz bezala; baita izan zen erorketa bat ere eta hilabete batzuk moztuta iduki dute horregatik.

Orain, udatik honat, gogor ari dira lanean eta uste dugu urte honen bukaera ia enbreatu eta prest izanen dela kotxeaz lasai pasatzeko, erorketa eta lohiari bildurrik gabe.

Guretzako, desberdin haundia izanen da bide hau arrimatzea, zeren adibidez, pentsa ezazue, Zugarramurditik Berara joateko 63 km. egin behar ditugula eta bestaldera, pista hontatik, Etxalarren barna ez direla 30 kilometrotara ailegatzen.



natura

natura

Betidaniko pasai familiar bat: belaiak, landareak, ereintzak, ibai gardentsuak, oiha sakonak, animaliak; inguru giro berdea zeru urdinen azpian. Gizakien duintasun eta arrazoiak nagusitutako munda bat. Bertan agertzen zaizkigun gauza ezezagun, lur sekretuak, arrazoitik urrugo kokatzen diren ezkutapenak susmo soil bat besterik ez ziren eta.

Emekiemeki erakusten digute lehengo zibilizazioa, gizakiaren izakera bizirik irauteko burrukatzea zela. Aro hau, zibilizazio modernuan ukigabe egon behar luke.

Garai batetik honantz panorama klasiko hau, erabat beldurgarria itzuli zaigu, dirudienez ez kontzientzi sozialak ez arrazoiak ere ez du gizona gobernatzen lurrazpiko indar ilunak baizik. Espiritu zientifikoa, teknika, mugagabeko medio

materialak, aberastasun gainbeheran murgildurik, bizitzeagatik bizi, gatazka hobe bizitzeko. Bizitzeko bakarrik? Pote huts ala kolila bat bezala? Itxura gabeko leize ondatzaile batean erori arte: politika borrokak, estutu eta laxatu, potentzia potentziaren kontra, misilak, bonbak, tankeak eta abar martxan jarritz. Zenbat txatar!!! Natura, bizitzaren elementurik jatorrena eta libertate maitaleen sormena ezer axolarik gabe.

Nazka ematen dit, ikusle bat bezala eserita egotea, haize dentso eta lingirdatsu hori, arnasten beharturik; paper zikin baten gisako zeru azpian. Bai zera!!! Natura maitaleen sentimentu garrantzitsu hori ez dute itzaltzea lortuko. Eskuak indarrez itsatsi eta aurrean topatzen ditugun istilu guztiak gainezkatu, naturan gelditzen zaigun zati biziak bizirik iraun dezan.

Lesakako Laminazioetako hauteskunde sindikalak eta etorkizuna



Azaroaren 25ean Lesakako Laminazioetan hauteskunde sindikalak ospatu ziren. Zentsuan 2.041 langile ziren eta botua eman zutenak % 84,3, aurreko urtetan baino portzentaia handiagoa.

Lau talde aurkeztu ziren eta hauen ordezkari kopurua horrela gelditu zen: ELAk 12 ordezkari, Ez kerra Batuak 5, LABera 4, eta CCOOek 4.

Aurreko komiteko ordezkariak hauek ziren: ELAk 15, Ezkerra Batuak 4, LABek 4, eta CCOOkoek 2.

TtipiTtaparen ale honetan talde bakoitzari bi galdera zehatz zuzendu dizkiogu:

1. Zein balorazio egiten duten hauteskundearen emaitzetaz.

2. Enpresak daraman berrestrukturaketari buruz, zein eritzi edota jarrera daukaten.

ELAKo ordezkariak ez dutenez eritzirik eman nahi izan, hori erran bait digute, hemen dituzue beste hiru taldeen erantzunak:

LAB

Hauteskundeetan Laminazioetan gertatutakoaren balorapen bat egiteko orduan, ezin bestez baikorrak izan behar dugu, izan ere %19 gorakada izan bait dugu botutan nahiz eta delegaturik igo ez. Hauteskunde hauen ondorioz, Komitean ere gertatuko da aldaketa nabarmenik, ELAk gehiengoak galdu duenez, gure ustetan, Komitean gertatzen zen hertsitasuna ez da gertatuko eta derrigorrez arazoak eztabaidatu eta defendatzeko orduan jarrera irekiagoak izanen direla uste dugu.

Baina, gure eskualdean ez dira Lesakan bakarrik ospatu hauteskundeak, hainbat lantegi ttiki, eskola, ikastola etabarretan ere egin baitira. Guk lortutako emaitzak onak izan direla azpimarratu nahi genuen, inoiz iritsi ez ginen lekutara heltzea lortu bait dugu. Beraz, hauteskunde hauek medio LABen presentzia handiagotu dela erran behar da eta honek suposatzen duen ardura jasateko prest gaudela agertu nahi genuke.

Lesakako Laminazioen etorkizuna aztertzerakoan derrigorrez, berrestrukturaketa aipatu behar dugu.

Duela urte pare bat Madri en sinatutako akordiooen arabera, hemendik 90ra bitartean, 55 urtetik goragoko langileak erretiratzeko ahalmena dauka zuzendaritzak eta horixe egiten ari da. Honek ez du erran nahi derrigorrez langile gehiegi dagoenik Laminazioetan, edota lanik ez dagoelako zaharrenak erretiratzten dituztenik. Kontua da legeak hori egitea posibilitatzen duela eta patronalak probetsatu egiten du kontratu finkoak dituzten langileak gutxitzeko, nahiz eta gero behin-behineko kontratuekin langile berriak hartu behar izan. Aurtengo udan 130 langile erretiratu dituzte eta hutsune horiek betetzeko ehundaka mila ordu "extra" sartu dira tresna batetik bestera langileok eraman-ekarri ibili gaituzte eta kontratoak ere gehitu dira. Hala ere, CCOO eta ELA lanpostuen murrizketa negoziatzearen aldekoak dira, beti ere inbertsioa dela eta lanpostu hori desagertu behar duela demostratzen bada. Sindikatu horien bidea onartuz gero laister tresnak (makinak) lan eginen dute eta bitartean langileok eta heuren familiak etxean gosez hiltzen. Eta garbi gera bedi LAB ez dagoela tresnak lan egitearen aurka, baizik eta hortik zortzen den dirua lau kapitalisten eskuetan geratzearen kontra. Horregatik, LABek onartzen du lan-tresnen obekuntza baina horrek lanpostuen desagertzea suposatzen baidu, lanpostu horiek beste toki batetan sartu behar dira, bestela langileen mixeria onartzea baita.

Beraz, ez dago batere argi eskualdeko gazteentzat Laminazioetan sarrera, gauzak dauden bezela egonik gehienez ere lan-kontratu behin-behinekoekin sartuko bait dira. Hala ere, horrek ez du erran nahi borrokatu behar ez denik, borrokaren bidez aldatu baita egoera. Hortan ari gera, hemen Lesakan ordu "extrak" desagertu daitezen aldarrikatzen dugunean, behinbehineko lankontratuak dituzten langileei kontratu finkoa egitea exigitzen dugunean etab.... etab... .

Dena dela, egoera hobetuko bada behar beharrezkoa da indarrak batzea nahiz lantegietan eta kalean egun dagoen marko politikoa aldatzeko. Hori lor dadin bidezkoena "Kas" alternatiba lortzean ikusten dugu eta "Kas" alternatiba hortako "Kas"eko erakundeak indartzea.



EZKERRA BATUA

Estatu mailako siderurgiako enpresek, CC00 eta UGTekin akordio batzuetara iritsi ziren enpresa hauen berrestrukturazioari buruz. Guri ere AHVkoak garenez, ukitzen digute akordio hauek. Oso luzea izango litzake prozesu guzti hau hemen agertzea, bakarrik, akordio hauek, Laminazioetara ekarri dituen ondorioetara mugatuko gara.

Enpresaren helburua, langile guttiagorekin, lehen bezala edo gehiago produzitzea da. Hortarako alde batetik langile kopurua jaitsi egin du, aldeaz aurretik jubilatuz, kanpora joateagatik dirua emanez etab. Beste aldetik mugikortasuna martxan jarri, ordu extrak sartuarazi, kanpoko enpresak sartu. laneko erritmoak handitu eta abar.

Eraso honen aurrean bi jarrera ezberdinak daude komitean, bata enpresaren plana negoziatu egin behar dela erraten duena. Hau defendatzen dutenak ELA eta CC000koek dira, eta hauteskunde aurretik behintzat, orain ez dakigu egin diren bi asambladetan hartutako erabakiak kontutan eduki gabe, negoziatu egin behar zutela erraten zuten. Asanblada hauetan Enpresaren plana ez negoziatzea erabaki zen.

Beste jarrera, Ezkerra Batukoak defendatzen dugu-
na da, LABere ados egonik, lantegi honetan ez dago-
ela langilerik sobera uste dugu eta gai honi buruz
egin diren bi Asanbladaren erabakiak onartuz aukera
hau eskeintzen dugu:

- Noiz behinkako langileak finkoak egitea, jubilatuena eta kanpora joan direnen lanpostu guztiak betetzeko.

- Ordu ekstrarik ez sartzea.

- Edonolako mugikortasunik ez onartzea eta kome-
nioak erraten duenera lotzea.

- Dirua hartuta joan direnak utzi dituzten lanpostuak langile finkoekin betetzea.

- Kanpoko enpresak kontratu beharrean, lan horiek langile finkoekin e gitea.

Helburu hauek lortzea, izango da Ezkerra Batuaren eginkizuna hemendik aurrera ere, orain dauden lanpostuak defendatuz eta berriak sortzeko borroka eginez, langabezia gero eta gorago bait dihoa.

Egin berriak ditugun hauteskunde sindinkal hauen balorapena egiteko orduan, gauza bat utzi behar da garbi, Enpresak egin dituen ahaleginak, inoiz baino gehiago, ELAk, Enpresako Batzordean gehiengoa ateratzen.

Zuzendaritzak komeniotik kanpo daudenei, botatze-
ra joateko agindu zien, azkenean listakoak begira-
tuko zituztelakoan, eta noski Enpresaren onerako
ELAr**i** bota zezajoten esan zien.


Komenioa negoziatzeko garaian edota langileok Enpresarengana zerbait eskatzera joaten garenean eta gure aurrean jartzen direnak txintxo aski han joan ziren botoa ematera, eta jakina dago nori boto-tatu zioten.

Dena dela, heuren helburua ez zuten lortu eta ELAk, ez du gehiengo lortu Batzordean.

Erran beharra dago, eta hau guretzako oso positibo da, ezker sindikalak gorakada dextentea jo duela

hartu dituen botoetan eta hemen ez dugu "CCOO" sartzen, lantegiko arazoetaz eta batez ere berrestrukturaketari buruz, ez bait du agertzen jokaera garbi bat, azkeneko Asanbladan ikusi zen bezala.

Beste aldetik botu igoera honek, berrestrukturaketaren aurka eraman dugun eta eraman beharko dugun borrokarako egoera hobean jartzen gaitu zeren gure Asanbladan parte hartzeko deiak justuak izan bait dira eta hor bait dago langileen batasuna eta interesak defendatzeko oinarririk hoberena.



CC.OO.

Hasteko, gure sekzio sindikalak izan duen aurre-rakada garrantzitsua agertu nahi genuke, aurrerakada haundiena izan duen indar sindikala. Botoetan: 163, 84ean, 233, aurten; delegatuak: 2, 84ean, 4 orain
ZALAINen 2. sindikatua botoetan.

Guretzat, gehikuntza hau lantegiko beste sindikatuengandik (ELA, LAB, eta Ezkerra Batua) erabili dugun linea sindikal desberdinaren eragina izan da, eta berdina ditugun arazoei (gehienak) irteera bateratua emateko beharra azpimarratu dugulako, AHV taldeko langileekin batera, (Zuzendaritza bera baitugu), eta berdina AHV guztirako plangintzak (gu barne); beraz, langileoi beharrezkoa zaigu ekintza sindikal elkartua eragitea, AHVko Zuzendaritzari posibilitate gehiagorekin aurka egiteko.

Orain, eta 1990 arte, berrestrukturaketa denboraldian gaude. Espainiar Estatuko Siderurgia Integral guztiari dagokion berrestrukturaketa. Espainia E.E.E.an sartzearen ondorioa da. Honek, Siderurgia buruak eta bukatze-plantak europar produkto siderurgikoari aurre egiteko moduan jartzea behartu du.

Langile Komisioak Birraldatzea defenditu dugu honela gure siderurgia lantegiak europarren pare jartzeko, eta AHVren kasu konkretuan Altzairugintza planta berri bat egitea (bestela burua hertsiko zen; eta lanpostu pila galduko)..., eta bukatze-plantak gaurkotzea (Bandas eta Lesakako Laminazioak).

Baina Langile Komisioak ez gara edonola sartu Berrestrukturaketa negoziatzera. Baldintza batzuk exigitu ditugu: ez dadila despidorik izan; aboroki-nak (eszedenteak) Inbertsio eta Metodo Hobekuntza-ren ondorio bezala bakarrik; akordatutako aboroki-nak dagokien diru kondizio-dun prejubilazioekin amortiza ditezela. Lan Plan bakoitza Lantegi bakoitzeko Komitearekin negoziatua eta erabakia izan dadila; eta Berrestrukturaketak ukitutako langileen eskubideak ez dezatela inolako gutxiagotzerik jas-
san.

Baldintza hauek denak AHVko beste enpresetan be-tetzen joan dira (Barakaldo, Sestao, Ansio, Bandas, Agrominsa), non Berrestrukturaketaren arazoa orain artean kalte handiagorik gabe, modu baikorrean, burutzen joan da.

Langile Komisioei oker historikoa derizkiogu ne-
goziaztera sartzeari ezetza emateak, eta Azaroaren
25ean lortutako emaitzekin Lan Plana negoziatzera
joan beharko genukela uste dugu, beti defenditu
ditugun eritziekin: kanpoko kontratuen ondorio
aborokinei ez; sailtako langileekin kontaktatu
ondoren eta Inbertsio eta Metodo Hobekuntzen ondo-
riokoei bai; eta noski negoziazioen ondorioei bu-
ruzko eritzia eskatu langileei. Azkenean, negocia-
tu, dagokigun iniziatiba berreskuratzeko. Baina
beti langileekin kontaktoan, negoziazio ondorioen
kontsulta eginez.

Beraz, Siderurgia Integraleko langileok (AHV, Ensidesa, AHM) proiektu komun bat defenditzeko gai izan behar dugu, honela gure arazoari era positibo batez aurre egiteko.

Bestalde Langile Komisiaok norabide ekonomikoaren aldaketa defenditzen dugu, Sektore Publikoa Ekono-
miaren eragile bezala defendituz, Estatuaren kon-
trolpean legoke Banka Publiko bat, erabaki publiko-
etan sindikatuen parte hartzea, eta lan orduei da-
gokienez 35 ordurarte lan orduak gutxiagotze maila-
katua exigitzen dugu, lana denon artean banatzeko.

Beno, eta lanean ari ezkerro, probextu, ahal den diru gehien lortu eta ia nor gehiago den, apostu da! zure burua ez bazaizu inporta seme-alabena begiratu. Ez dira hilko, noski, ezta zu bezain gorriak ikusiko! Noizik behinka izanen dute lana -txintxo eta langileak badira-, lanera joateko autobusa ordaindu beharko dute,... enpin,enpin!



VLIESENA, S.A.

ELA-tar KOOPERATIBA ?



Izenburu bat jarri behar genuela eta hara hor zein aukeratu dugun! Bistoso behinik behin!... Justifikatu beharko dugu orain.

Vliesena ezagutzen ez duenarentzat, fisikoki, esan dezakegu Donezteben dagoela. Doneztebetik Ezkurraruntz karreteraren ezker aldean, San Miguel emitaren parean. Gaur egun sasiz harturik bere ingurua, zuria du kolore nagusia, zuria eta kristala, kristal apurtu batzuez eta pintadaz apaindua...

Pestsona gehiago dira Vliesenatik pasatu direnak, lan egin dutenak, gaur egun eztabaidan inplikaturik daudenak baino. Hala eta guztiz, erabateko sinbolo bat dugu... Norena da? Noren erruz itxi da?, Zergatik? Zein irteera du?, Zein aurrera jarraitzeko modua?.

Galdera gehiegi, egia esateko, gure posibilitateentzat. Ez gara profesionalak eta, batez ere, isiltasun gehiago aurkitu dugu, hitz iturriak baino. Hortaz, idatzi hau maingua edo errena dugu zeren inde-

pendienteak soilik azaldu dira solasteko prest. Horregatik ez dugu afer itxia... Dena dela, eta independenteen hitzetik aparte, kontatu dugu enpresak tarteka azaldutako agiri batzuekin, sententzi eta errekursoekin. Goazen harira!.

Hirurogeiko dekadaren sortua -1964an- urragarri edo abrasibo diskak egiteko, enpresa honek Jauja bolada bat izan zuen, urte haietako ezaugarriekin: soldata txikiak, salmenta errezak, lehen materi merkeak... 1971an 300 langile inguruko kopurua zuen, ehundik hirurogei emakumezkoak. Zirkuito berezia ere, gehienbat exportaziora dedikatua: hemendik Alemaniara bidaratzen zen eta handik mundu guzira zeren, multinazional edo nazio askotako enpresa baten menpean bait zegoen. Kapitalak, teoriz behintzat, legezko proportzioak gordetzen zituen -ehundik 51 eta 49-. Hori bai, kapital soziala 15 milioi-koa zen, bakarrik.

1975ean, komenio kolektiboa zela eta, lehen mobilizazioak izan ziren, grebak,





merkatuko estutasunak, etendurak; langile kopurua ere gutxitzen zihoan, ezkontza edo Laminazioetara aldegitera zela medio. Eta, inportanteagoa dena, ofizinista edo beheko langileen arteko etendurak, eztabaida klasikoa.

Orduezkeroztik, eta kanpotik begiratuta dirudienez, hagitx postura markatuak, mugatuak, iriki ziren.

Enpresa aldetik, lantegia salbatzea dela eta, langileen kopurua gutxitzea dirudi irteera bakarra. Behin eta berriro gauza bera adieraziko du.

Horrela, 1978ko urrian, erregulazioan hasi eta ehundik 33,3 langile txandaka hilabeteko langabezira, bultzatu ditu, ondoren epea bete baino lehen mozteko eta lanean "a tope" jartzeko.

1979an berriz, 135 langile kopurutik 92 edo 93ra jeitxiz, indemizazioen bidez (200 milakoa lehenbizi, gero 400 eta 600 azkenean ordainduz).

1980aren hasieran, "Solicitud de reducción de plantilla" delakoan, 46 langile ez produktiboak zeudela esaten da...

1982a, gehiegi ez luzatzeagatik, balantze hau egiten da, noski 30 langile bidaltzeko asmoarekin:

..."Hemos de declarar claramente que la única solución viable que vemos es la extinción de 30 puestos de trabajo con el fin de sanear la Empresa y producir lo necesario.

Tal y como se encuentra la empresa en estos momentos no puede continuar cara a un futuro próximo.

Las pruebas patentes son:

AÑO 1979: Mucho personal, mucha exportación, conflictos laborales = 56 millones de pérdidas.

AÑO 1980: Poco personal, a pesar de grandes conflictos y abonando fuertes indemnizaciones = + 0 pesetas.

AÑO 1981: Mucho personal, mucha producción y exportación = 20 millones de pérdidas aproximadamente. "

Kontuan hartu behar dugu, 1980tik 1981ra ez dela langile berririk kontratatu, noski. Prezioen gorakada latzak, ustegabekoak, egon zirela: soldatak % 22 igo baziren, lehen materiak 15etik 25era-

koa izan zuten, energiak 50ekoa, garraioak 15ekoa eta dirua 20koa -enpresaren hitzetan-. Irteerak? Ordurarte exportaziora dedikatzen zen enpresa (% 80-85), hortik aurrera nazional -estatal- merkatura zuzendu eta, nola ez?, 30 langile horiek bidali. Ez da, behin ere, enpresaren gestioa zalantzan jartzen, grebak bai, horiek izugarritzko minak egiten omen dituzte eta, derrigorrezkoa denez, plantillaren minori txiki batetik sortuak, heuren ustez. Vliesenan ere ba omen ziren gaiztoak!.

Langileak ez datozte denak bat. Lehen-dabiziko istiluak tailerreko eta ofizina-koen artean ditugu, 1978ean, lehen ez bada. Aipatutako agirian, hau da: "Solicitud de plantilla"n- azaltzen denez, langile batek 499.500 pezeta irabazten bazuen urtean, ofizinista batek berriz -bat az bestea- 912.500eko soldata zuen. Nahiz agiri hortako datuak erabili ez dakigu norainoko fidagarritasuna duten.

Langileen artean ere, hasierako mobilizazioak komisioren bidez egiten baziren edo lehendabiziko hauteskundeetan independenteak irabazten bazuten, 1982koetan hiru ELAko eta independente bat atera ziren. Enpresak, ordurako, bere politika gogortu zuen, konbenioko negoziaketan, urtarrikako greba aurrean, ... eta, esan dugun bezala, urte hartako otsailarako 30 langile bidaltzeko plana egin zuen.

Orain arte liatu xamarra iruditu bazai-zu, animo!, zeren, hemendik aurrera ez da argiagoa eta. Gehiegizkoa ez da izanen berriro lehen esan duguna azpimarratzea, independenteen bertsio soila dugula, bere bertsioa eta Magistraturako erabakiak. Azaldu ere, batzuek oztupo besterik ez badigute jarri, hauek laguntza guztia eskeini digutela. Esker mila!

1982garren urtean berriz, Enpresa eta ELAkoen gauzak nahasten hasiak dira, eza-gutzen dugun bertsioan. Ofizinako langileak, Kubatt zuzendari jaun bera eta beste langile batzuk ELAn sartu dira eta Vliesenan zurrumurru bat zabaldu da: ELAra afiliatzen ez direnak langabezira joan beharko dutela zeren 45eko langile kopurua nahiko omen da. Gehiago, Vliesena Española S.A., kooperatiba bat bihurtu behar omen da: itxi eta hamabost egun barru, beste izen batekin eta ELAra afiliatu direnekin, irekiko omen da. Orduan izanen zen, ELAko kooperatiba bat, pro-



Hiru hilabetero ateratzen den aldizkari honek, hurrengorako erantzuleari eskeintzen dio hitza.

1983 hasieran, urtarrilan hain zuzen, bidaia fantasma bat egiten omen dute Kubatt jaunak eta ELAko mandataria zen edo den Mikel Olazabalek... Barzelonara lehendabizi, Sabadellera gero, eta bigarren hiri honetan etxe zahar bat erosten dute -edo alkilatu, ez dakigu- Vliesenako ofizina han balegoke bezala... Ondorioa? Hain famatuak diren "Suspensión de Pagos" Sabadellen Errenteriko Niessenek, honek ere aleman kapitalarekin, antza handiko etendura egin zuen-. Independentiek berriz, Iruñara ekartzea lortzen dute eta hemen hasten da hauzitegi aurreko eztabaida. Bahitura edo enbargua; enkante edo subasta... eta independenteak enpresak onartutako eskubideak balioerazi egiten dituzten bitartean, enpresa berak bi fronteko jokabidea darama:

-Batetik, hauzitegi aurrean, eta Jose M^a Treviño epaile jaunaren bidez manio-brak luzatzen saiatzen da behin eta berriro: Ricardo Bona Creixellek, 25 milioi eskeintzen omen ditu subastan, gero ez dira inondik azaltzen... Gunter Otto Boppe jaunak, Alemaniako langilea hemengo batzuen ustez, hipoteka fantasma bat azaltzen du... Ulrich Kubatt jauna ere agertzen da dirua eskeintzen, baina ez ematen...

-Beste aldetik, 1984eko urtarrilan, "Plan de Viabilidad" bat azaltzen da, hau da: enpresa berri bat sortzeko plana. Ezaugarriak? Hara hemen, 66ko langile kopurua izan eta bakoitzak milioi bat gutxi gora behera paratu (800.000 "Fomento de empleo" ematen duena eta 300.000 edo 400.000 Diputaziotik) eta lehen bait lehen hasteko, kreditoak eskatu behar... Begi bistan agertzen dena, exportazioko kopurua da: 1982an esaten zen guzia, exportaziokoa ez egokitasuna, garestitasuna eta abar, 1984an berriz, zeharo aldatua agertzen da, nonbait, eta % 80 eta gehiagoko exportazioa planifikatzen da... hau ere esaten da: "Durante el ejercicio del año 1982 fueron abonados un total de 18 millones de pesetas por intereses bancarios, etc. Claro está que, la nueva sociedad no se podrá permitir tales gastos.." 1982ko "Vliesean Española"k bai?. Erru guziak ez ote ziren langileenak?

LATZ

dukzio kooperatiba, eta den dena Kubatt jaunari saltzeko... bera erosle bakarra.. mami berezia, benetan!... Egia izan edo ez izan, ikara antzeko giroa sortu da!

Eta gaurko egunean? Errekurtsoak direla eta, enpresaren jabetasuna zalantzan dugu. Banatu da bi zatitan, baina batzuek, besteek esaten dutenez, ados ez direla eta ... lanin hasi nahi dutela... makinaria eta lokal zati bat dute, besteek sarriera ematen diete... baino, itxuraz behintzat, nahikoa ez da. Horregatik nahi genduen hitzegin, jakin zer nolako asmoak dituzten, zer posibilitateak ikusten dituzten, baino ez dugu lortu, nahiz Donostiako ELAri deitu, zeren eta kanpotik berriro Vliesena Españolako datuak azal-etik ikusirik oso errentablea ez dirudi eta, beste aldetik, merkatu aldaketak noraino laguntzen dute? "Laxer"en erabilerak neurri handi batean ez ote du abrasiboa baztertuko?

Eta, ez dira hemen gure galderak bukatzen. Azkenengo hilabete hauetan eztabaidak gogortu dira, erabat ia.

Langabezian daudenentzat ordaindutako kurtso batzuk egin behar zirela eta independenteek legea eta nahiz errekurtsio baten menpean egon, heuren den lokala eskeini zuten, - kurtsilisten artean independenteak eta ELAkoak daude-. Ez ba!. Hori dela eta, egon diren borroak, kolpeak, ate haustak, ikaragarriak izan dira. Zer esan nahi dute? ELA Sindikatoak eginkizun horiek jasotzen al ditu? eta Mehatxuak?... Ez dago hau inondik hartzerik! Nor da ekintza hauen erantzulea?



BUKATZEN EZ DEN ASUNTOA

Enpresak lanpostuak ez dituztela berritzen, nondik aterako dugu dirua? Menditik? Baserritik? Denak alde egin beharko ote dugu? Ongi zegok! Beitu! 1980ean, hain zuzen, Baztan, Malda-Erreka eta Bortzirietako Udaletxe guztiak, Diputazioari zuzendutako agiri bat sinatu zuten. Hauxe hain zuzen:

EXCELLENCE IN DIVISION:

Los Ayuntamientos y Concejos abajo firmantes, después de un estudio general realizado sobre el paro y la falta de puestos de trabajo en la región, así como el previsible deterioro del problema de puestos de trabajo, consideramos como grave esta situación, por lo que creemos oportuno elevar esta petición a una Excm. Diputación Foral de Navarra por entender que dicho problema sufre hoy en cierta medida las competencias y atribuciones correspondientes a los Ayuntamientos y Concejos y, por lo expuesto,

SOLICITAKOS:

- 1º): Que esa D. D. D. Diputación realice un estudio en base a la información que los Ayuntamientos aportarán sobre el índice de parados y puestos de trabajo existentes en la Región.
- 2º): Que dicho estudio debe de contemplar no solo la situación actual sino que además deberá hacer un análisis, con previsiones de futuro, en base a determinar cual será la situación de la Región en los próximos años, así como posibles soluciones alternativas a este problema.
- 3º): Como cuestión inmediata y mientras se realice este estudio, consideramos como imprescindible que esa D. D. D. Diputación intervenga directamente y evite la desparición de cualquiera de los puestos de trabajo actualmente existentes.
- 4º): Teniendo conocimiento estos Ayuntamientos y Concejos de la posible desaparición de 40 puestos de trabajo en la fábrica VIESCHA, ubicada en el término municipal de Sagasteban y tal como pedimos en el punto 3º, consideramos que como cuestión inaplazable, esa D. D. D. Diputación deberá intervenir para evitar la desaparición de dichos puestos de trabajo.


Gracia que esperamos obtener de esta Corporación Fomal, cuyo -
vida de sus componentes Dios guarde.

A diecinueve de Mayo de mil novecientos ochenta.

Erantzunik ez du izan, dakigunez, pertsonala ez-
zik. Ez al du, Diputazioak, alde honetarako begira-
darik? Izan, izanen du baina gu enteratzen ez bage-
ra, asko balio!

Gutxi garela, jakina, berezi xamarra, botu bakanak,... baina bagara, oraindik ez gara hil, ezta hilko ere, ze arraiol! Noski; Diputaziokoak ere, morroi besterik ez omen dira, Madrilen morroiak, Madrilgoak berriz, Bruselasenak, eta gu? Noren morroiak gara?

Marmariak izanen dira akaso, baina mendi goiko laborantzian sartu gaituztenez, badirudi interesatuak daudela hau nolabait ez dedin hustu. Mementuz behiak bakandu behar ditugu, ardiak gehiago jarri, saneatu denak, kooperatibak egin... inongo explikaziorik gabe. Hemen ekintzaren politika erabiltzen



da eta hau goratu, hura jaitsi, nahi ta nahiez ba-
karren batek aukeratutako bideetatik eramaten gai-
tuzte. Azalpenak noiz emango?

Uyuyuy! Ia eta hasi garela, jarraitu beharko. Bat baina gehiagori entzun diet inguru hau turismo-rako nahi dutela beste irteerarik ez omen dute i-kusten, inguruko turismoarentzat nahi gaituzte, beste aldekoen antzekoak izateko. Goazen ba beste aldeko lagunengan eta ikasi han zer eta nola bai, zer eta nola ez eta, batez ere, azalpenak, esplika-zioak edo dena dela. Diputadoak edo bere azpikoak gu bizi gerala eta kontuan hartu eta etor-daitezela honata, ikusten dutena garbi adieraztera eta guk, jakinki, nola edo hala entendituko dugu eta zer nahi dugun erabakil! Esaten genduen, Iruiñea, Ma-dril edo Bruselas ditxoso horiek baino urrutiragol!

EHNE - Nafarroa

Jo ta ke

EHNE
VGAV



nekazarien alde

Euskal Herriko Nekazarien Elkartea, Nafarroan orain dela berri sorturiko sindikatu bat dugu eta dagoeneko mobilizazioetan gogor ari zaigu, izan ere abiapuntuan adierazi zuen bezala, sindikatu hau, nekazari txiki eta erdi mailakoez osaturikoa da, hauen interesen defentsa hartuaz helburutzat. Sektore honek bere biziko unerik txarrenetarikoa pasatzen ari du. Krisia lehendik bazetorren ere, EEEen sartzeak erakarri du erabateko porrota.

Hau dela eta EHNE-k salatu zuen bere momentuan, estatu espainolak gurekiko zeraman utzikeria eta politika zapailtzailea eta bide batez mobilizazioak egin ziren orduan egiten ari zituzten inportazio masiboen aurka.

Bestalde, bilera bat ere izan genuen FORPA-n ganaderitzako zuzendaria den Alonso jaunarekin eta aski garbi utzi genion administrazioari, momentu haietan nahiz eta zerrien prezioa altua izan, inportazio izugarri haiek era bat lur jota utziko zutela gure merkatua. Hala ere kasu gutti egin ziguten eta hori gutti ez bazen, IPC delako hori jeisteko aitzakitza harturik berriro ere guri, sektorerik ahulenari jo digute, inportazioei bidea emanez; gaur egun egoera jasan ezina bilakatu da.

Erran beharra dago ere, nahiz eta E.E.E.n txerriak hemen baino garestiago egon, exzedenteak honara botatzen dituztela, horrela gure merkatua izorratuz, eta bitartean, administrazioak ez du ezer egiten haien bidea erraztu ezezik.



Gauzak honela, momentu honetan txerrietara dedikatzen den sektorea erabat desprotejitua dago, izan ere, txerri txikiak kostatzen diren baino mila pezeta gutxiago balio bait du saltzerakoan, eta bestalde, nahiz eta EEEen txerri gizenduen garantiatzko prezioa 230, Pzta. izan, hemen ez dute hori ere ordaintzen; badirudi hortarako ez gaudela European.

Egoera honi aurre egiteko bilerak burutu zituen EHNEK Lekunberri, Oronoz-Mugaire eta Lizarran, eta denetan, presio ekintzak egitea erabaki zen, karreterak moztuz, eskakizun minimo hauek erreibindikatzeko:

- Merkaturia erabat lur jota dagoela ikusirik "klausula de salvaguarda" delako hori jarri dezatela.

- Txerri gizenen kasuan, administra-
zioak EEEko garantiako prezioa ziurtatu
dezala.

-Gure produktoak jeitxi behar badituzte inflazioa ez igotzeko jeitxi diezagutela baita ere materia primaren prezioak, hau da: piensoak, abonoak, etab.

Bestalde eta aldizkari hau Baztan Bidasoa ingurukoa denez, exprikatuko dizuet xehetasun gehiagokin Mugairen egin zen karretera mozketak.

Ehun eta berrogeitamarren bat baserri-
tar bildu ginen Mugaireko eskolan eta
egoera aztertu ondoren aho batez presio
ekintzak egin behar zirela erabaki ge-
nuen; momentuan egin genezakeen egokiena
karretera moztea iduritu zitzaigun eta
bi orduetakoa izango zela erabaki genuen.
Karretera oztopatzen jarri bezain laister
etorri ziren guardiazibilak. Gauzak ho-
rrela gure jokaera pazifikoa zela adie-
razi genien eta ziurtatu ere, ez zela
deus pasatuko haiek ez baziren sartzen.

Hala ere, laister aski etorri ziren lagun gehiagokin bidea irekitzeko eskatuz. Guk jaramonik egiten ez geniela ikusirik, eraso ziguten Land Rover-ekin, baserritar bat zauritua gertatu zelarik.



Auto horrek pasatzea lortu ba zuen ere, ez zen inor gehiagori pasatzera utzi, baserritarrak tinko eta gogor bait zeuden heuren posturan. Bi ordu pasatu ondoren pasua libre utzi genuen, egin zen ekintza positibotzat joz eta berriro egingo diren deialdietara adi egoteko eskatuz.

EHNE-Nafarroako partaide bat.

LANGABEZIA, LAN-KONTRATUAK

ETA GAINERAKO MIXERIAK

Langabezia izanen da zalantzarik gabe azken garaietan erabilienetako hitza. Beti dago politikarien ahotan, nahiz eta langileria izan barnean jasutzen duena. Halere, garai bereziak heltzen direnean, areagotzen da erabilera, (hauteskundeak kasu) honelako eta besteko irtenbideak emanez, eta hauteskundeak irabaziz gero arazoa konponbidean jarriko dutela aginduz. Baina errealtateak bestelako kontuak erakusten ditu. Eskeintza asko egin arren, praktikan langabetuen kopurua ez da jeisten, etorkizun hurbilean gehitu egingo da eta epe luzera, aurrerapen teknologikoak kontutan izanik, zer erranik ez!.

Artikulutxo honen helburua ez da ezer proposatzea, eta gutxiago irtenbiderik bilatzea. Gai honi buruzko eritzi pertsonala azaldu nahi dut soilik. Azken batean, idazteak, solastearekin gertatzen den legez, neurak arintzeko balio baitu. Hala uste dut behintzat!!

Dena den, eta gaian sakonki sartu aurretik, ikus dezagun langabeziak segitu duen prozesua azken urteotan, gure eskualdean.

Datu hauek INEMetik hartuak dira

	1.979	1.980	1.981	1.982	1.983	1.984	1.985	1.986-Martxoa
ARANTZA	16	14	15	21	31	25	33	26
IGANTZI	12	8	13	23	18	26	41	44
ETXALAR	19	7	7	8	10	12	32	24
LESAKA	45	45	49	83	105	100	112	142
BERA	62	52	58	102	111	103	196	206
BORTZERRI BATURIK	154	126	142	237	275	266	414	442
SUNBILLA	7	15	15	10	30	38	32	33
DONEZTEBE	22	14	15	29	66	70	73	74
ELGORRI	3	3	6	7	13	19	22	22
ITTUNA	5	6	6	18	39	30	30	31
ZUBIETA	3	8	6	10	7	11	14	12
LABAIEN	-	1	1	5	14	14	10	12
SALDIAS	4	6	4	4	7	15	8	9
DONAMARI	8	3	4	3	17	22	15	18
OIZ	-	-	-	8	-	10	9	15
URROZ	1	2	2	2	3	5	2	3
MALDA-ERREKA OROTARA	53	58	59	96	196	234	215	229
BERTIZ-ARANA	5	17	9	8	38	47	43	47
BAZTAN	53	74	86	213	276	340	264	307
BORTZERRI, MALDA-ERREKA BERTIZ-ARANA, BAZTAN, OROTARA:	265	275	296	554	785	887	936	1.025

Lehen begiradan ikus dezakegu, oro har urtetik urtera langabetuen kopurua gorantz doala. Apur bat sakonduz gero, nabarmena da 1982 geroztik jasatzen duen gehikuntza, hain zuzen ere PSOEn garaian, 800.000 mila lanpostu ospetsu horiek eskeintzen zizkigunean. Beste datu bat ere azpimarragarria da. Azken urteotan noizik behinkako kontratuak dituzten langileak gehitzen ari dira, eta aurrerantzean goraka joanen da, haxe baita izan ere patronala eta administrazioaren nahia.

NOIZ BEHINKAKO LAN-KONTRATUAK, ZEIN HELBURUREKIN EGITEN DIRE?

Egun, kontratu finkoa egiten duten enpresak oso gutxi dira, legalitateak beste posibilitateak eskeintzen bait dizkio. Honela, nagusiak nahi duenean, lanik ez denean, edo baten bat begitara ongi erortzen ez zaienean, kontratua apurtu eta kitto. Noiz behinkako langileak, eskubideak arras mugatuak dituzte praktikan. Ezin dezakete grebarik egin, ba bait dakite eginez gero, kontratua ez diotela berrituko. Enkargatuaren erranetara makurtu behar dute, kasu askotan ia serbilismoan eroriz. Ordu estrak sartzea eskatzen badiote, egin beste aukerarik ez daukate, kontratua bukatu bezain laister lanik gabe geratu nahi ez badu. Beste kontua berriz, noiz behinkako langileak kontratatzeko erabiltzen diren kriterioak dira. Denok badakizkigu (gure eskualdean behinik-behin) erabiltzen diren bideak nolakoak diren, hots: Favoritismo hutsa.

Jakina da baita ere hauteskundeetan zenbait alderdik erabiltzen duten politika, botoaren truke semearentzako lanpostua eskeiniz honelako edo halako lantegian. Kontratatzeko orduan berriz, lehenik hartzen direnak enkargatuaren, alderdiko kidearen iloba edota lantegiko burutxo baten alabaren senargaia aukeratzen dira lehenbizi. Nire ustetan, kriterio zehatz batzu ezarri beharko lirarteke kontratatzeko orduan, baina noski, hauek ez dituzte enpresariak jarriko, baizik eta langileen eginkizuna da beuren interesak defendatzeko eta gauzak dauden bezala, inolako langabetuen erakunderik gabe, urrun ikusten dira honelako kontuak.

Enpresa handiek, noiz behinkako kontratazioekin batera, beste figura berri bat sortu dute: SUBKONTRATAZIOA. Ho-



rrela, enpresaren barruan lan konkretu batzu egiteko, kanpoko enpresa bati agintzen dio. Gisa honetan, enpresa baten barruan mota aunitzetako langileak aurkitu daitezke: kontratu finkoa duten langileak, noiz behinkako kontratu dutenak, enpresa subkontratuak baino kontratu finkoa dutenak, enpresa subkontratuak noiz behinkako lan kontratuarekin, ... etab...etab...

Ze ondorio dakartza honek? Elkartasun eza, indibidualismoa. Enpresariaren helburua langileak bereiztea da eta problemaren aurrean bera bakarrik jartzea. Norberak konpondu behar du bere arazoa eta gisa honetan beste egoera batetan onartuko ez lituzkeen baldintzak onartzera behartua aurkitzen da. Marx ospetsuaren hizkera erabiliz, gure lan indarra gero eta merkeago saltzera behartuak aurkitzen gara. Eta jakina! Bizitzekotan eta ogia lortzearen, lan-indarra bakarrik daukagu salgai, polita izateagatik oso gutxiri ordaintzen baitiote.

Eta ez dezagun geure burua engaina! Badago filosofia mota nahiko erratua he-

rian, zeratsu dioena: "ba, noiz behinkako lan kontratuekin bederen lana banatzea lortzen da eta horrela, gaizki edo ongi denok bizi gara". Azken batean honekin nolabait justifikatu egiten da lan-kontratu finkoak ez egitea. Bitartean banko handien irabazia gero eta handiagoa da, monopolioak indartzen doaz eta krisia langileak bakarrik jasaten dugu. lan-kontratu finkoak ez egitea. Bitartean banko handien irabazia gero eta handiagoa da, monopolioak indartzen doaz eta krisia langileak bakarrik jasaten dugu.


EGOERA HONEK NORA GARAMATZA

Duela gutti, European zehar denboralditxo bat lanean pasatu dituen lagun batekin egon nintzen. Bere ustetan, hango egoera, beharbada oraindik okerragoa da, ze indibidualismoa hain dugu sartua non nagusiek ohu egiteko eskubideaz ere ja-

betu diren. Europa zoragarri, haurrerakoi eta demokrata horrek horretara garamatza. Eta kontutan eduki behar dugu, teknoloji berriaren eraginez (informatika etab...) entresistem reestrukturaketa gera ezina izanen dela, lanpostuen galera etengabea eta berrien sorkuntza..... ikusi behar.

Bukatzeko, gauza bat utzi nahi nuke garbi. Sindikatu erreformistek etengabe dihardute negoziazio, paktu etabarren defentsan solasean dena konponduko babilizan, mahai baten inguruan esertzea nagusia konbentzitzeko erarik onena dela demostratu nahian. Historiak bestelako kontuak erakusten dizkigu, eta aurrerantzean ere zerbait lortzekotan bide horiek hartu beharko ditugu, hots: Elkartasuna eta borroka bidea.

ASSURA



EUSKARAK SEI DURO BALIO

KONTXEXI ETA OXEMIELEN MARMARIAK

-Arratsalde on, Kontxexi. Zer, esku-puntuak?

-Garbiketa etaazienda bazkatze lanak egin ditut, eta eskuetan orratzak hartzea entretengarri. Jar zaitez, Oxemiel, baso ardoa aterako dizut.

-Badakizu, Kontxexi? Irisarriko Arroxiari eskolako lanpostua eman omen diote heldu den ikasturterako.

-Bai ote?

-Bai, emakume. Euskara titulua bazuela eta, horregatik hautatu omen dute.

-Pozten naiz. Oroitzen zara, Oxemiel, gure azken eztabaidako solasaldiaz? Balio ote du bada, euskararengatik kezkatzea eta saiatzeak!

-Eraman nituen ostikadak eramanda, nola ez naiz bada oroïtuko?

Izan ere, hainbat urtez euskarari burula egin diote, eta erdaraz ez egitea lotsagarri jotzen zuten. Gutxiago inork agertu nahi ez eta, euskara baztertu egin dugu aunitzetan, sobera ohartu gabe ere bai.

-Badakit, bai, gure nortasuna eta izaera ukatzera bortxatu gaituzte, eta agintariak dena erdaluntzen joan dira. Baina orain ohartzen hasiak gara, lehen ez bezala, gure hizkuntzaren balioaz: GUREA baita, eta horregatik zaindu eta maitatu beharra.

-Hori, Kontxexi, ezin du inork ukatu, gure gurasoengandik hartu dugu ta.

-Orain, horrez gain, bizi bidea aisago lortzeko eta jende artean itxura ona agertzeko ere balio digu gure hizkuntzak.

-Baina oraïndik guraso frango da beren umeentzat euskarak duen importantziaz ohartu ez dena. Eta amerikanoen ixtorioa bururatzen zait.

-Ze ixtorio? Konta, konta Kontxexi.

-Ameriketari hamar urte eginda etorri omen zen, sosaz ongi hornitua eta harrokeriaz ere bai. Trene-




tik jaitsi eta, zaldikarroa hartu zuen, bere sorterrira joanetorri zuena. Txoferra herritarra zuen eta ezaguna. Herrira irixtean, amerikanoak "Cuánto?". Eta txoferrak: - "Bost duro". Amerikanoak ordea, ez konprenitua eginez, "Cuánto?" berri ere. Eta, "Bost duro", txoferraren erantzuna. Eta amerikanoak hirugarren aldiz, "Cuánto?" egin zuen galde modua. Eta txoferrak, haserre, zera erran zion: "seis du-ros".

Ja, Ja. Euskara ez jakin itxura, garesti gertatu zitzaion amerikanoari.

Bai, eta horrelako irabaziak izango dituzte, nire ustez, gañ euskara estimatzen ez duten batzuk.

EUSKARAREN LEGEA ALA KONTRAKOA?



Badakizue Nafarroako agintariek egin diguten Euskararen legeak edo hobeki errateko, "vascuence"-ren legeak solas bide frango eman duela orain arte eta emanen duela zalantzarik gabe.

Lehendik Euskal Herria hiru zatitan banatu badigute, Nafarroa alde batetik Iparraldea bertzetik eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bertzetik, urrabanaketa hori aski ez genuela orain Nafarroa bera ere zatitu egin digute hiru lurralde bereiziz: lurralde euskalduna, lurralde mistoa eta lurralde erdalduna.

Horrela Nafarroako lurralde erdia bertirako erdaldun izatera kondenatu dute legeaz, ofizialki. Eta bertze erdian, hau da, lurralde euskaldunean eta mistoan legeak ez du inolako indarrik euskararen alde behartzeko, baizik eta dena agintari bakoitzaren "borondate ona"-ren esku

uzten du eta beti Amejoramendu eta Konstituzioaren barrenean. Eta denok badakigu Konstituzioaren prinsipio nagusia zein den: euskaraz jakiteko eskubidea badaukagula eta gaztelania jakiteko, berriz, eskubideaz gain obligazioa ere badaukagula. Baina zertan gelditzen da euskaldun baten eskubidea bere solaskideak euskaraz jakiteko obligaziorik ez badu?.

Lege honek bertzalde, euskararen erabilpenari dagokionez bi arlo aipatzen ditu: Administralgoa eta Irakaskuntza.

a) Administralgoari buruz zera dio: euskaldun lurraldean bi hizkuntzak koofizialak izanen direla, baina euskararen ofizialtasuna poliki poliki sartzen joanen dela. Non gelditzen da ofizialtasun horren indarra?. Lurralde mistoko bizilagunek, nahiz eta eskubidea izan Administrazioari euskaraz zuzentzeko, ez dute eskubiderik erantzuna euskaraz jasotzeko. Lurralde erdaldunean azkenik, euskara

erabil daiteke, baina Administrazioak eskubidea dauka itzul dezan eskatzeko.

b) Irakaskuntzari dagokionez, euskaldun lurraldean gurasoen borondatearen arabera finkatuko da irakaskuntza euskaraz eta beti Unibertsitate mailako ikasketak gaztelaniaz izanen direlarik. Berriz bi lurraldeetan eta beti euskararen arabera, euskara hizkuntza gisa ikasteko lagunduko omen litzateke, baina ez ikasketak euskaraz egiteko.

Gainera kontutan eduki behar da neurri horiek gehienezkoak direla. Eta hori bada gure hizkuntzari eman nahi dioten harreara, garbi dago lege hau ez dela euskararen legea, euskararen kontrakoa baizik, euskara itotzeko eta desagertarazteko egindako neurri egokia. Behin eta berriro erakutsi diguten bezala orain ere frogatu digute euskara eta euskaldunak garela gure agintarien etsaiak.

Batzuk arrazoi hau erabiltzen dute: egia da lege hau txarra eta esakasegia dela, baina hobe da lege txar eta eskasa bat legerik ez izatea baino. Arrazoi hori faltsua izan daiteke gure ustez. Batetik, euskararen legea badugula eta, konformismo batetan eror gaitezkeelako eta berrizetik, lege horrek ez digulako biderik eskaintzen euskararen normalizaziora -ailegatzeko (normalizazio ez da aipatu ere egiten). Eta euskarari ez badio irtenbiderik ematen eta loakartzera eta konformismoan erortzera bultzatzen bagaitu, hobe genuke lehen bezala jarraitu.

Lege honen egileak egunero ari zaizkigu bakearen aldekoak direla erraten. Halere lege honekin, gerra deklaratu diote euskarari eta ofizialki deklaratu gainera. Bagenekien lehendik ere deklaratu zeukatela; orain, okerrera da legearen izenean joka dezaketela euskararen kontra, legea eskutan erranen digutela: ez dizuegu utziko euskaraz bizitzen.

P.I.



XORROXIN IRRATIA

Baztango Irrati librea



Baztan aldeko lagunak badute zerekin entzumena gozatu. Klik...irratia jarri eta begikeinu tentagarri bat bezalaxe bereganatzen gaitu maitekiro. Batzutan kantuz, bertzetan serioz, beti gure arteko laguntasuna jorratzeko gogo biziarekin. Bere onden bidez ez dugu "Ariel"ek daukan birtuteen berri izango, baina bai ordea, Baztango herrietan gertatzen denarena.

Ez ditugu profesionalak, eta gogoko dute zuzenean aritzea, bero-beroan, apalki, gustora ari direnak dakiten bezala.

Telefono batez baliatuz, gauzatzen da egunero entzuleen partizipazio aktiboa irratsaioetan.

Horrela, erakundeek, beren problematika azaltzen dute, gizakumeek, gizarte honetan gertatzen dena, ikastolako haurrek, beren ixtoriotxoak eta ez zaigu faltatuko ere, albaitero, erizain eta beste hainbesten komentario eta aholkuak. Eta guzti hori, musika atsegin eta multikolorearekin tartekatuz.

Baztango berriak, elkarrizketak, deba-teak, musika, ring-ring, ametsak, fantasia ... guzti hau, euskaraz XORROXIN IRRATIAN aurki dezakezu. Eta oportunitatea aprobetxatuz XORROXINeko partaide batekin elkarrizketa hau izan dugu.

TT-TT: Dakigunez XORROXINek badarama denbora frango martxan, kontaiguzu beraz, nola sortzen den XORROXIN IRRATIA?

X: Nahiz eta aurretik gestioak egin eta baimenak eskatu, Radio Paraisokoak eskeini ziguten laguntzari esker montatu zen lehen aldiz emisorea. Erratzuko eskoletatik emititzen genuen garai hartan. Gero legalitate aldetik zeuden oztopoengatik eta bertze zenbait arazoengatik urte battez emititu gabe egon ginen.

Bigarren etapa berriz, orain dela urte bat hasi genuen, emisore berria erosi eta ... Hortarako Irulegi Irratikoeke eskeinitako laguntzaz baliatu gara. Beraiek duten irrati egiteko modua oso gustokoa dugu.

TT-TT: Zer nahi duzue egin irrati honen bidez?

X: Alde batetik euskararen presentzia bultzatu gure esku ditugun komunikabideetan, eta beste aldetik, gazteentzat eta nahi duen guztientzat tresna ezin interesgarriagoa eskeini... beraien kreatibitatea, egin nahiak eta abar betetzeko, hau da; ez daitezela soilki entzule pasiboak izan, baizik eta zuzenean parte har dezatela.





TT-TT: Nola funtzionatzen duzue gaur egun, ze pega dituzue?

X: Zera, pegarik haundienak diru aldetik datozenak ditugu... diskoak erosteko, telefonoa, argia, e.a. ordaintzeko. Beno, urtea pasatzeko eta behar dugun diruaz hornitzeko, beti bezala, pegatinak salduduz eta herrietako bestetan ostatua jarritz lortzen dugu, hau da, guttienez milioi erdi bat urtea pasatzeko.

TT-TT: Eta programazioa, nola planteatzen duzue?

X: Hasteko, eguerdiro guttienez bi ordu beteko ditugu. Zerbait gai arinekin has gintezke eta gero, tarte informatiboa eskeintzeko, egunkariak eta aldizkariak dakartena ikustera pasatuz. Baztan bertako berriei berriz, tratamendu berezia ematen diegu. Herri guztietan korrespondentsal bat dugu, eta berak kontatzen digu zuzenean telefonoz, bertako berriak eta gertakizunak.

Eguerdiko bi ordu horiek betetzeko eta gainerako programazio librea koordinatzeko, pertsona baten dedikazioa beharrezkoztat ikusten dugu. Hortarako eta momentu honetan dugun posibilitatearen arabera, pertsona horri diru zerbait, oso gutti, ordaintzen diogu, seinale bezala. Aipatutako bi ordu huez kanpo, programazio librea planteatzen dugu, guttienez hamabi ordu bete arte.

TT-TT: Kritikarik jaso al duzue programazioari dagokionez?

X: Bai, bakarrenbat eta hori oso seinale ona dela uste dugu, entzulegoa badagoela erakusten baitigu.

Badaude zenbaitzuk musika gehiegi jartzen dugula erraten digutenak, eta hori beharbada programazioaren akatsa da, erraxena musika jartzea baita. Beraz, gure nahia programazioa aberastea da; nekazaritza, osasuna, aiuntamentuko arazoak, kirolak eta beste hainbat gaietaz arduratuz.





AHO BATEZ, ABORTUA LIBRE ETA DOHAINIK HEMEN

Irratian, TVan, prentsan abortuari buruz ari dira. Abortua gora, abortua behera. Hirietan berriz, manifestaldiak, ekintzak, detentzioak, epaiketak... Abortuak estatu mailan egiten ari dira, gutxi batzuk legalak dira (bortxaketa kasuan, amaren edo haurraren bizia arriskuan dagoenean). Bertze batzuk, klandestinoak, klinika partikularretan egiten ari direnak, eta klandestinoagoak ere badira: etxeetan egiten direnak, hauek baldintza sanitariorik gabe. Badirudi mogigimendu hauek hortik zehar gertatzen direla, hemen, horrelakorik ez dela. Eta batek baino gehiagok galdetuko du: Baztan, Bidasoa, Malda-Errekako herri txiki hauetan abortatzen al da? Hemen ere emakumezkoak horrelako aferatan sartuak al dabilta? Egia erranaz, inguru hauetan ez da mintzatzen abortutaz,

badirudi hemen ez dela horrelako problemarik, hemengo emakumeok desberdinak garela.

Herri txiki hauetan, denok eza-gunak gara, denok dakigu bestearen berri, horregatik gauza hauek ez dira solastu ere egiten. Kontradizio haundiak sortzen bait dira, meza joaten den emakume batek nola erran lezake bera abortuaren alde dagoela edo berak ere abortatu duela? Nola erranen du gazte batek?... Ez, ez da aise erraten. Baina, inguru hauetan ere abortatu egiten da. Emakumezkook hurbil dugu muga eta mugaz bestalde abortatzeko aukera. Kilometro batzuk besterik ez dira, jinekologoarengana joan eta kitto! Egun bateko gorabehera, diru pixka bat ordainduz, bakoitzaren egoera konpondua.

Dena dela, egoera larriak dira nahigabekoak, ustegabeen sortuta-

koak: nahi gabe haurdun gelditzea, edo haurrak haziak izatea, edo jorنالیک etxean ez sartzea, gaztea izatea... Mila arrazoi erraten ahal da. Baina arazoa hor dago. Eta nola konpondu? Haurdun gelditzea eta haurrik nahi ez dela une horretan Hau, zera da: "salvese quien pueda" bat. Horrela, Bidasoa inguruko emakumezko batek haurrik izan nahi ez duenean ez daki nora jo, ez daki nori erran, nondik hasi. Harea jo, honera etorri eta azkenean aurkitzen du zuzenbide bat; gehienetan, ezta bere buruari ere ez dio erraten abortatzera doanik, joan besterik ez du egiten, joan eta "pisu" hori kenduta etorri. Eta, beste aunitz ausartu ez direlako hor gelditzen dira: nahi gabeko haur horrekin.

Estatu mailan abortatzea debekatuta dago. Hiru kasu berezitan bakarrik aborta daiteke. Hala ere errealitatea zera da: egunero jendea beste aldera joaten dela edo Londresera, Holandara... ahal duen lekura. Eta hori Gobernuak badaki, eta zer egin du? Lege txar hori paratu eta lege horren azpitik zera atera da, klinika pribatuetan abortu klandestinoak egiten direla. Eta noski behin pastela agertuz gero, hau da, hainbeste abortu eta abortu egiten direla, bada... azkenean abortua estatu mailan eginen da, baina klinika pribatuetan eta ez Seguritate Sozialean ezta dohainik ere. Eta horrekin ere ez gaude konforme, guk abortoa, dohain, librea eta Euskalerrri bertan nahi bait dugu.



ZER DA ABORTUA?

Lehenbiziko 28 astetan haurdunaren etenaldiari deritzen zaio abortua. Hau, berezkoa edo probokatua izan daiteke.

Abortua probokatzeko zenbait teknika badaude, gaur egun gehien erabiltzen dena zera: umetokiko aspirazioa edo Karman-en Metodoa. Metodo honen bidez, umetokian dagoena ateratzen da, tubo xulodun batzuk erabiliz.

Arrisku batzuk daude: bat, umetokia zulatzea. Bestea odol-jarioak izatea edo zoldurak sortzea. Kasu batzutan ere heriotza sor dezake. Horregatik, behar beharrezkoa da baldintza egoki eta sanitariotan egitea, klandestinitateak beti ere arriskua gehiagotu egiten duelako.

Hala ere kontutan eduki behar dena zera da: familia izatea edo ez, aurrez planifikatu behar dela. Eta neurri egokiak hartuz gero, hau da: antisorgailu egokiak erabiliz, ez dela aborturik.

A.Z.

«Ley del Vascuence» zer da?

Lege honetaz luzez hitz egin eta idatzi da, baina azkenean erabakia hartu duena gutti batzuren interes politikoa izan da, eta ez gure hizkuntza zapaldua babesteko edo berreskuratzeko nahiak.

Hasteko zera erran behar dut: euskara (Euskal Herrian) gaztelania baino maila beheragoan jartzen duen lege oro, euskararen "aurkako" legea izanen da.

Parlamentuan "eztabaidatu" den lege honek Nafarroan euskararen egoera ez hobetuz gain egoera minimo hori mantentzeko ere biderik ez du ematen.

Legea "fabrikatu" egin da, sortu zirenetik gure hizkuntzaren bilakaeraren alde lan egiten duten erakundeek, (A.E.K. edo Euskaltzaindia esate baterako) parte hartu gabe eta hau sekulako akatsa da.

Lege itaundua, kontsentsuatua da, azpimarratu behar delarik eskuinak bezala, navarristak eta estatalistak, pozik onartu dutela.

Del Burgo jaunak lege hau onartzeak eman dezake argia haren edukinaz. Bera, eta berak Parlamentuan ordezkatzeko eta adierazten dutenak pozik badaude, nola erran daiteke lege ona, lege aurrerakoi dela?

PSOE eta bere politika zein mailaraino diren euskararen aurkakoak ikusteko, gogoratu ahal dugu Amadeo Marcoren garaietan Boletín batean agertu zen erabakia, Nafarroako euskarari buruz: "Teniendo como objetivo la recuperacion del euskara en Navarra, la creacion de las ikastolas podrá generarse a traves de la iniciativa de cooperativas de padres, de municipios y de la propia Diputación".

PSOE Diputazioan dagoenetik (bera bakarrik) egiten ari dena, ikastolak ekonomikoki itotzea da, desagertarazteko nahian. Hau da PSOE "socialista eta aurrerakoa". PSOE atzerakoa benetan, ez bait du inork errango Amadeo Marco jauna bere politika aurrerakoa eta euskararekiko maitasunagatik nabarmentzen zenik.

Lege hau atzerakoa dela eta ez duela izpi aurrerakoirik ere, eta euskararen "aurkako" legea dela frogatzeko, adibide pare bat jarriko dut: a) . Etxalarren barna ibiltzen diren goardia zibil edo



polizietako bati ez bazaio euskara ikasteko beharra jartzen, zergatik behartzen du Mendauroko artzain bat gaztelania ikastera?.

b) . Goardia zibil baten seme bati, Lesakan irakaskuntza erdaraz ziurtatzen bazaio, zergatik ukatzen zaio tuteratar bati euskaraz ikasteko aukera?.

Uste dut garbi gelditzen dela euskararekiko jokaera diskriminatzaile eta kolonialista, bai PSOEn aldetik, bai instituzio moduan, Parlamento aldetik.

Nire eritziz, legee honek "ustez" biltzen dituen helburuak lortzeko, guttienez honelako baldintzak bete beharko lituzke:

1. Euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan.
2. Nafarroa osoan O.H.O. ikasketak bukatu ondoren ikasleek bi hizkuntzak ezagutzea ziurtatzea.
3. Nafarroa osoan telebista kanal bat eta irrati bat euskaraz edukitzea.
4. Euskararen presentzia bultzatzea komunikabideetan eta seinale eta errotulo publikoetan.
5. Ekintza kulturalak euskaraz bilakatzeko, hala nola: antzerkia, liburuak, etab.
6. Toki izenak direla eta jatorrizko izenak errespetatzea.

J. Etxebeltzea

NI NAIZ

Ni naiz zure atzean
dabilen itzal beltza.

Ni naiz gauetan zu
ernatzen zaituen ametsa.

Ni naiz zuri argia
ematen dizun izarra.

Ni naiz libertatea
gustatzen zaion kattu ttikia.

Ni naiz Atsa hartzen
duten denon haizea.

Ni naiz zu bustitzen
zaituen udako euria.

Ni naiz beti zu zaintzen
egoten naizen aingerua.

Ni naiz zu mozkortzen
zaituen ardo ikustezina.

Ni naiz gaizki egiten
dizun eguerdiko bazkaria.

Ni naiz beti oztopatzen
duzun harri kozkorra.

Ni naiz lepoak mozten
dituen aizkora zorrotza.





Katarro txar batekin
nabil aspalditik.
Honek hondatuko nau
ni erdi-erditik
Atxis-atxis ahotik
malkoak begitik.
Sendagileak berriz
txista ipurditik.

Txistea

Supositoriak
eta aspirina.
Indizioen erruz
ipurdiko mina.
Sudurretik zintzilik
kandela bikaina.
Hamabost musuzapi
zikintzeko aina.

Ainara Narbarte (Goizueta)

Urteak, 7

Egun batean mutiko bat joan zen ardoa eroatera
eta esaten du mutikoak: Litro bat ardo.
Eta dendariak: Zuria ala beltza?
Mutikoak: berdin da itxu batentzako da eta.

Dani Narbarte (Goizueta)

Urteak, 9



Hirukote baten azpian

Lore hubel bat

Hitzilipurdikatzen diren hitzak

Zubi zahar batek jaso ditu

Entzuten didazu ama?

Oh Jerusalem;

Nor maite dut nor?

Iskanbila

Beti firrildan ibiltzeko prest

dagoen piztia nauzue

Ametsarik gabeko gau itsusia

Ez dut negarberrituko

Itsuak eta mainguak

Borrokan ikusi nahi ditut

ASKAMIN

Orio 1986 - Irailaren 8.

Lankratx-e
larunbat ga

Hameka joan-etorri egina naiz geroztik, alderdi horretako neskak politenen destinoa eta txofer bakoitzaren mania guziak ezagutzeko haina. Orain, ordea, kotxea erosiz geroztik, ahantzia dut astelehen goizetako bestondoak autobus zakarrean sufritu beharra. Hilabeteen behin, gehienez ere, hurbiltzen naiz herri ttikira: larunbat arratsaldean agertu, biharamuneko ordu beretsuetan bueltatzeko. Joan den asteburuan bezalaxe.

Orain dela urte batzu basoak hustutzen ibiltzen ziren gorputz dantzaridun aunitz erretira egin dute etxezuloetara, eta aurpegi berriek inguratzen gintuzten ostatuko musika builosoarekin batera. Ameriketara zenbait urte artzai pasa ondotik herrira itzultzen direnetaz oritu nintzen. Pixka bat haien gisara sentitzen bainintzen, dozena bat urtez geroztik hitzik egin ez nuen haur denboratako lagunarekin aritu nintzenean.

Bi seme-alabaren aita egina dagoela erran zidanean, ezin ebitatu nere buruari erratea, "motel, motel nola pasatzen den denbora!". Bertze laguna heldu den astean esposatzen da,... Txolin berriz, azkenean andregaitan hasi omen da,... bakan batzu gelditzen dira, bakan batzu bakarrik, nere Lankrax honen modura, soltero oraindik, lorez lore ibilki direnak alegia.

Horretaz ere aritu ginen pixka bat solasean motorrak berotu genituen. Konfiantzazko lagunaren artean itxirik egon behar ez duten ateak ideki ondotik. Neskekiko hartu-emanak, hain errazak izan litezkenak eta guk horren beste zailtzen ditugun hartu-eman horiek. Hor kultura, ohitura eta natura indarrak inon baino kontrajarrirago agertzen dira maiz elkarrekin borrokan. Hor ekilibrioak bakoitxak berak bilatu behar izaten du edo, berari dagoikiola, desekilibrio egokia.

Polliki polliki abiatu ginen Anttonioren ostatura. Afaria bihurtzen da horrelakoetan ospakizun inportanteena. Mahaian jarri eta eguneroko klienteak bagina bezala, galdetzeko astirik eman gabe, berak serbitu zizkigun eskatu behar genituenak. Ardo berexia ere, kortxoa ateratzeko aitzakiarekin saludatzeko minutu pare bat gelditu zelarik. "Hok etxeakoak dituk" errateko zen zeremonia guzi hura. Eta horrela sentitu ere egin ginen gu. Anttonioren mardoxka izaten gara "etxeakoak", larunbat frankotan bertan afaltzen dugunak. Eta gure artean ere ez da falta izaten gonbertsiorik.

Bete bezela hustu ere egin zen jantokia. Lankratx ta biek gelditu ginen bakarrik. Lanataz aritu ginen orduan. Eguneroko lanaren absurdoaz. Bizitzaren puxka haundiena horretan aritu beharraz. Gehienetan inolako satisfaziorik ematen ez zuen horretaz. Bizi ala existitzeaz.

Solasa eta ixilaldia tartekatu genituen. Ixilaldi beteak ordea. Erraten ari ginenaz pentsatzekoak baitziren. Artzaia horrelakoetara konstunbratua dago. Pentsamendutan ordu luzeak pasatzen ditu. Ausnarrean.


Anttonio ostalaria-laguna, lan handixkoenak eginik, hurbildu zitzaigun. Mahai gainean ukondoak iltzatu eta galdeka hasi. Hontaz ta hartaz. Kafe ta kopa izan genuen hirurek etxearen kontura, eta gus-tora aritu ginen tertulian erlojuaren martxa zer agintzen zuen inportatu gabe. Politikaz ere zerbait erratera klaro xamar atrebitu ginen. Atrebitu erraten dut, ixildu egiten garelako, gehienbat kontrako opinioea ez adierazteagatik. Eta hartan kontsegitu genuen, nonbait, mintzarako espreseko giroa. Ondorio hori ere norbaitek ateri zuen: alegia, sobera gutti solasten ginela politikaz. Eta horrekin batea kritika falta nabarmen ez ote zen nagusitzen ari gure heri kaxkar honetan. Komodoagoa hagitzez bakoitxak bereari fijo kontzea. Hor konpon, elurra bota nahi badu ere!

Berandu izan behar zuen ostatuko eta faltsoa Anttoniok ideki ziguneko tenorea. Berandu, ez baitzen Beran ostatuko idekirik gelditzen. Gauak bere onenak emanak zituen. Gu ordea gehiago nahian, konformagaitza baita hagitz gizona. Mingaina moteltzen hasia bazen ere, kotxeak hartu eta Lesakarako bidean abiatu ginen laino tartean. Bertsoa ez zen biztu, bertze zenbaitetan pasatu zenaren kontrako alde-ra. Galdua genuen neurri batean pentsatzeko funtsa, eta aintzinerara tira egiten genuen, jakin gabe nora, geure baitako animali izakera temoso batek bulkatuta.

Danbor soinu ikaragarriak ernatu nau goizean etxeko ohatze gainean etzinta. Ordu batzu lehentxeago hain goxo eta gus-tagarriak ziren xurrutak, estomakan geldiezinean dabiltzan zinaurriak bihurtu dira. Buruak ere nonbaitetik ongieza heldu zitzaiola nabaritzen zuen. Guzi horiek ahantzirik gelditu dira, hala ere, euri eraso zoragarri batek bazterrak zartakatzten zituela ohartzean. Arbol hostotan dinbi-danba, ernatu nauen danborra. Leihorearen kanpoko azala zabaldu eta argi berriaren mina sentitu dut begietan. Kanpoko azala zabaldu eta argi berriaren mina sentitu dut begietan. Kanpoko sinfonia belarrietan, buelta eman dut maindire azpian eta kuttunaren gorputz epela bilatu. Herri ttikian nintzen berriz ere.

Kapi.

SORGINEN LEIZEAK



Zugarramurdiko hirigunetik km. erdi baino gutxiagotara eta mendebalde-direkzioan kokaturiko izugarritzko konplexu karstiko superfiziala osatzen dute sorginen leize hauek. Izan ere, Zugarramurdi-Sara bide zaharrean dauzkagu, berau partzialki zeharkatua delarik.

Leize hauen barrunbe nagusia, oraindik ere emaritsua den ur-korronte batek sor-

tua da. "Infernuko Erreka" k hain zuzen ere: zeharkatzen du, IEHM (Iparrekialde-Hegomendebalde) direkzioan jartzen den ardatzadun tunel zabala eratuz; 120 m-tako luzera, eta, 10-12 m. batez besteko altuera dauka; konplexu karstiko honetan ere, goiko partean, bi galeriak dute kokapena, gutxi gorabehera galeria nagusiaren orientabide berean, eta barrunbe honetara desenbokatuz.

Hobi arkeologikoari dagokionez, 1935 urtean, Jose Miguel de Barandiaran arkeologoak prospekzio bat burutu zuen, bertan Magdalenien jenerikoari egokitu zizkion faziesukarrien xafak eta kera-
mika prehistorikoaren zenbait lekukotasun topatu zituelarik.

Baina, bere izenak adierazten duen be-
zala, leize hauen ospea, SORGINEK emanda-
koa da.

Sorgin hauen historia 1610 urtean du
interesgune, zeren garai hartan aldizka
aldizka Euskal Herria menperatzen zuen
sorginikara olde bat Nafarroako Iparre-
kialde muturreko aldean, Lapurdirekin
mugakide, hedatu bait zen. Horrela, Lo-
groñoko hauzitegiko Juan del Valle Alva-
rado jaun inkisidorea, mandatari igorria
izan zen eskualde honen miaketa egitera.
Zugarramurdin zenbait hilabete iragan
ondoren, salaketa ugari bildu zituen,
zeintzuen arauera 300 pertsona inguru
sorginkeri salakuntzapean inkulpatu-
rik geratu bait ziren, umeak aparte utzirik.
Pertsona hauen artean, errudunenak ziru-
diten 40 atxilotu zituzten eta Logroñora
eramanak izan ziren.

Inkisizioak pertsona hauei egokitu ziz-
kien salakuntzak, besteak beste, hauxek
izan ziren: deabrua Jainkotzat edukitzea
eta berarekin meza beltzak ospatzea, bai-
ta metamorfosiaren burutzapenarena ere,
itsasoko ekaitzak sortetzea (Zugarra-
mudi, lerro zuzenean eta distantzia ez
oso handian dago kantauri itsasoarekin,
eta sorginek Donibane Lohitzunera sartzen
ala irteten ziren itsasontziak galerazte-
ko ekaitzak gertarazi ohi zituzten), bi-
deen, animalien eta baita pertsonen kon-
trako malefizioak egitea, eta azkenik,
beste gauza batzuren artean, banpirismo
eta nekrofagia egitearen salakuntza ere.

Horrela izanik, 1610ko Azaroaren 7 eta
8an, sorginek hartu zuten beren epaia:
18 absolbatuak, 12 sutean erreak (haieta-
riko 5 efigie eran, lehenago gartzelan
hil bait ziren) eta gainontzekoei mota
askotako zigorrak ezarri zizkien, besteak
beste, ondasun-galpena, betirako gartze-
la, gartzela mugatua, eta abar.

Zugarramurdiko akelarrearen pertsonai
garrantzitsuak honeko hauek izan ziren:
Graziana de Barrenechea eta bere senarra
Miguel de Goiburu, erregina eta errege
nork berea; Joanes de Echalar deabruak

agintzen zituen zigorrak berrero hiltzai-
lea zena; Maria Chipia sorginkeri artea-
ren jakintsua; Joanes de Goiburu txistu-
laria zen, eta Juan de Sansinek danborra
jotzen zuen.

Hau guztiau, garaiko dokumentuek esaten
digutena besterik ez da; baina gaur egun,
Zugarramurdin, akelarrearen eskenatokia
geratu zaigu soilik ("Deabruaren Katedra-
la" geroago esango lioketen moduan) eta
Zugarramurditarrek beren sorginekin zeuz-
katen peripeziak kontatzen dizkiguten
kondairak ere. Gisa honetakoak: sorginek
neska bat bahitu zutenarena, sorgin batek
jaso zuen eskarmentua "behar ez zuen le-
kuan sartzeagatik", edo eta mendian gal-
dutako bi ahizpena, sorgin batzuren ala-
baren bataioarena, argiezkila jo baino
lehenago etxetik irteten ausartu zenare-
na, sorgin bat bere emazte gaitzat zeukan
mutilari gertatu zitzaionarena

Legenda hauek, sorginak uxatzeko era-
biltzen zituzten metodoak ere adierazten
dizkigute: etxeko atean lizarrezko bi
adartxoek egindako gurutze bat jartzea,
eta bere ondoan ereinotz-sorta bat, ho-
rrela sorginek ezin sarturik ibiliko li-
ratekeelarik; sorgina etxean sartua bale-
go, eskukada bat gatz beheko sutara bota-
tzea, eta pindarkatzearekin batera sor-
gina uxatu egiten zen; horrela eta guztiz
ere, norbaitek aurrez aurre topo egiten
bazuen sorginen batekin, aitaren egin
eta "Jesus" esatea aski zen, edo eta bes-
tela hatzamar erakusle biek gurutze
bat trazatu, eta "Pues" esatearekin bat
eginik sorgina bat batean desagertzen
zen. Iluntzeko angelus eta egunsentiko
argiezkilaren artean etxetik ez irtetea
zen kontutan hartzeko beste arau bat.
Legenden artean beste honako hau ere dau-
kagu: Zugarramurdiko bizilagunak, sorgi-
nak desagerrerazteko ahaleginetan, Abutu-
ak 15 batetan prozesioan joan ziren lei-
zetara eta bertan, apaizak bedeinkaturiko
ziape-erregu bat sakabanatu zuen sorginak
desagertzeko eta erregu hartan zegoen
ziape-ale beste urtetan ez itzultzeko
(eta orain dela asko bederen, ez dugu
bat ere ikusi hemengo inguruetatik).

Eta hau da, gutxi gorabehera, herri
honek eta leize hauek duten historia,
beronek Zugarramurdik leku guztietan duen
ospea eman diolarik:

"ZUGARRAMURDI: SORGINEN HERRIA".

Josefko
Zorobeltzaren
abenturak







MARLI



MARLI



